



ARGIA


**"Ikaragarri
sufritu zuten:
gerra, goseteak,
deportazioa,
gillotinak..."**

Adur Larrea

'Lurbintoko ohoinak'
komikiaren egilea

40-43. orrialdeak

#2.814 | 2023 / 02 / 26 | 4,00 €



**Sexu abusuak
eta boterearen
itzala**

24 | ELIZA



**Indarkeria
matxistaren
inguruko legeez**

30 | CARLA VALL ABOKATUA



LARRUN #282
**Energia berriztagarriak
bai baina nola?**



Prezioa **28,00 €**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa
doan **40€**-tik gorako erosketetan.
Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 19 | ASIER BLAS
- 20 | ANE ABLANEDO
- 21 | ZIGOR ETXEBURUA
- 21 | CASTILLO SUÁREZ
- 22 | MIKEL OTERO

Finkoak

- 36 | ARGIA KOMUNITATEA
- 37 | DENBORAREN MAKINA
- 38 | BIZI BARATZEA
- 44 | KULTUR-KRITIKAK
- 47 | DENBORA-PASAK
- 48 | ARGÍ-KONTRA:
IRATXE AGILERA "KAI-NAKAI"
- 50 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


DANI BLANCO

14 | **ANJEL PRADO, VENEZUELAKO EL MAIZAL KOMUNA SOZIALISTAZ**

Danele Sarriugartek egin dion elkarrizketan azaldu du nola politizatu zen, nola bizi izan zuen Chavezen iraultza eta nola jarri zuten martxan El Maizal komuna sozialista. Egun, esperientzia hori irla bat izan ez dadin dituzten erronkak ere azaldu ditu.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | **INET HURBIL**

**Klimaren auzian erabakiak bideratzea
da ultra-aberatsen estrategia**

Jenofa Berhokoirigoin

24 | **IGIZARTEA | SEXU ABUSUAK ELIZAN**

**Botere harremanen
borreroak eta gatibuak**

Urko Apaolaza

30 | **FEMINISMOA | CARLA VALL**

**“Soilik baietz da baietz’ legea
kritikatzen dutenek edo ez dute
irakurri, edo ez dute ulertu”**

Saioa Baleztena

34 | **OSASUNA**

**Desikasi daitekeen
minaren ondoeza**

Olaia L. Garaialde

40 | **KULTURA | ADUR LARREA**

**“Komikiak aukera
ematen digu gauzak
askeago kontatzeko”**

Gorka Bereziartua

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Leire Rodriguez, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUIREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure
egile eta aitortu eta baldintza beretan
eginez gero. Are gehiago, gure edukiak
ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren
edukientzat da baliagarria,
baliteke beste testu eta argazki
batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Haiek eta gu

Klima larrialdiak jo gaituela, denok gutxiago kontsumitu behar dugula... Eta bai, hala da, baina ez guztiz. Energia krisi bete-betean gaudela Josu Jon Imazen Repsolek 4.251 milioi euro irabazi zituen iaz, aurreko urtean baino %70 gehiago. Eta Iberdrolak, 4.204 milioi. Haren buru Sánchez Galanek 13,2 milioi euroko soldata izan zuen 2021ean. Ukrainako gerraren aitzakiapean, aspaldiko lapurretarik handiena burutu dute. Baina zerbait ona badu. Munduaren egituraketari buruzko azterketa soziopolitiko edo geopolitiko burutsurik irakurri gabe ere, argi azaldu digute gauzek nola funtzionatzen duten: gutxi batzuk izugarri aberasteko, beste asko pobretuarazi behar dira. Hori bezain sinplea da. Irudian, Jauzi Ekosozialeko kideen protesta Bilbon Energia pobreziaren aurkako nazioarteko egunean, 'Haien luxua, gure fakturak' lelopean.



Greba Nafarroan, zerbitzu publikoen defentsan

XABIER LETONA BITERI

Duela hamarkada bat egin behar da atzera Nafarroan joan den astean administrazio publikoan bizi izan den greba moduko bat ikusteko. 29.000 langile deitu zituzten grebara LAB, UGT, ELA, CCOO, Stee-Eilas eta SAEk.

Nafarroako Gobernuaren aurrean mila-laga lagun bildu dituzte.

ELAko ordezkari Izai Bujandaren esanetan, “jendetza honek erakusten du mobilizazioa arrakastatsua izan dela. Jendea haserre dago eta bilkura honekin haserre horri aurpegiak eta gorputzak jartzen dizkiogu”. Hedabideen aurrean egindako balorazioan ELAko eta UGTko ordezkariak aritu dira, eta Bujandak salatu du “gobernuak jarritako gutxieneko zerbitzuak handiegiak izan direla. Uler-tzen dugu gutxieneko zerbitzuak egotea, baina ez horrenbestekoak”.

Langileen haserre aipatu dute sindikatuetakordezkariek, osasun zentroetan eta eskoletan aspaldi egiten ari diren gisa, baina azken egunotan bada haserre hori areagotu duen faktore bat: Nafarroako Medikuen Sindikatuaren greba. Zenbakiei begira, greba hori txikia izaten ari da, eta osasunaren sektore publikoko gainerako sindikatuaren ikuspegiaren aurkakoa da, besteak beste, gehiengo sindikalaren aburuz hark bere burua bakarrik defenditzen duelako, eta osasunaren izpiritu publikoaren aurka ari delako. Hala ere, Foru Gobernuak arreta osoa eskaini dio, eta prest egon da sindikatuaren

hileko 1.000 euroko soldata igoera eskaeraren aurrean 400 euro di-da batean eskaintzera. Gehiengo sindikalaren soldata igoera eskaerari, ordea, gobernuak erantzun ohi dio Espainiako Gobernuak ez duela horretarako tarterik uzten.

Kontuak kontu, arratsaldeko Iruñeko manifestazioan 4.000 pertsonatik gora bildu ziren, goizeko Nafarroako Gobernuaren aurreko bilkuran baino gehiago. Gobernuak esan du aintzat hartzen duela protesta, eta prest dagoela negoziazio mahaian esertzeko, baina ez duela soldata igoerarik eskainiko orain arte egindako proposamenetatik gora. Pentsatzekoa da sindikatuak indartuta joango direla negoziazio mahaira, horren denbora gutxian kalean mobilizazio ahalmen maila bat erakutsi dutelako.

BOST ALDARRIKAPEN

Honakoak dira gaurko greba bultzatu duten sindikatuaren bost aldarrikapen nagusiak: bat, administrazioeko langileen behin-behineko tasa %8ra jaistea; bi, erosahalmena berreskuratzeko soldata igoera; hiru, ratioen hobekuntza, zerbitzu publiko hobeagoa eskaintzeko; lau, lanbide karrera denontzat; eta bost, zerbitzu publikoen defentsa.

Ekitaldiaren bukaeran ordezkari sindikalek egindako hitzaldian adierazi dutenez, greba honen funtsa da publikoaren pribatizazioari aurrea egitea eta zerbitzu publikoa defendatzea. ●

“Euskal hiztun askok nekez irensten dugu erdaraz ekoiztako kate bat. Irentsi behar badugu, gutxieneko bat eskatzen diogu: ez gaitzala tribu indigena sentiarazi, hemen ardaztua izan dadila. ‘Akelarre’k ez du hori betetzen”

XABIER EUZKITZE

Bertsolaria eta komunikatzailea ETBn.

@XABIEREUKITZE
(2023-02-15)



“Euskaldunok zertara goaz ‘Akelarre’ bezalako saioetara, zer publiko konkistatu nahian, zer homologazio lortu nahian? Zergatik jarraitzen dugu ETB2ko zaborra elikatzen, zabortegi horretara gonbidatzen gaituztenean?”

JULEN GABIRIA

Idazlea.

@GABIRIAKOPA
(2023-02-15)



MATERIALISMO HISTERIKOA

Nori barre



UXUE APAOLAZA LARREA

Ondo pentsatu behar da politikari bati konplimenduak egin baino lehen, ia beti dago inozo itxura emateko arriskua, ia inoiz ez baitakizkigu atzean dauden arrazoiak, politikariaren bando osoa erosi dugula uler daiteke gainera, ulertu nahi daiteke gainera. Baina ondo pentsatu behar da politikari bati egiten ari zaizkion barreei batu aurretik ere, iseka nondik datorren, oso arrunta baita besteari garela uste, eta geure buruari barre egitea.

Zentsura-mozio batean senarra baino hobeto aritu zela esan zion eskuindar batek, eta kezkatu egin zen ea harremanean horrek arazoak sortuko zituen. Supermerkatu bateko kutzazain izan den bat nola iritsi daiteke dirudunen alfonbrak zapaltzera, gizon baten bidez ez bada? Galdetzen dute etengabe sareetan. Ez dute gehiegi sinesten beraien sisteman berean. Zakilen bat ahoratu behar izan dugu beti, literalki, edo ez. Askotan irudikatu dute belauniko. Sareetan hori ere, baina ez bakarrik. Politikari, berriro, eskuindar batek argitu du: zauriak omen ditu ahoan, Iglesiasen zakila zurrupatzeaz.

Diskretuago ere jarri dute zalantzan, behar izan denean, gertuago dituenek, urrunetik hala ere. Horiek arduragabe itxura eman nahi diote, txoriburu agertu. Legez lege. Lege feministaz, lege feminista. Zentzudun plantak egin eta denok "baina"-ka jartzen gaituzte, hiperzaindari, berriro ere.

Berdin zait zein alderditakoa den. Berdin zait alderdi horrek zer kontraesan dituen, zer desaktibatu duen kalean, behar bezain ezkertiarra den termino absolutuetan. Irene Montero iraintzen dutenean, ni iraintzen naute, gu iraintzen gaituzte, eta gure mugak zein diren gogorarazten digute. Berdin zait zein alderditakoa den, eginean erakusten ari da feminista dela. Ez diezaigun geure buruari barrerik egin. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

IMPUNITATEAK
20 URTE



ADUR

Presoak

Suizidioa da heriotza kausa nagusia Europako presoan artean. Presoen suizidio tasa gizartean dagoen tasaren bikoitza baino gehiago da eta presoan herenak buruko gaitzen bat du. Europako presoan osasunari buruzko 2020ko datuak dira, aurkeztu berri duten OMEren txostenak azaleratuak.

Argi-kutsadura

LEDak direla eta, gaur ikusten ditugun izarren erdia ikusiko ditugu 20 urte barru. Argi-kutsadura uste baino askoz azkarrago ari da handitzen, *Science* aldizkarian argitaratutako azterlan batek azaleratu duenez. Mundu osoko zeruei begira gauzez egindako 51.351 behaketen datuak dira.

Zuhaitzak

Ekologistak Martxan Bizkaia taldeko aktibista batek epaitegietan deklaratu behar izan du, desobedientzia larria eta agenteen aurkako atentatua egotzita. Irailean atxilotu zuten Barakaldoko Serralta auzoko 40 zuhaitz moztearen aurka protestan zela. Eredu horretan etxebizitzak eraiki nahi ditu udalak.

EKONOMIA

Zor patriarkala



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Emakume langileok badugu zer salatu eta exijitu otsailaren 22an, soldata berdintasuna aldarrikatzeko nazioarteko egunean, eta egingo dugu berriz ere. Ez da alperrik izango gainera, lortu dugu onartzea soldata arrakala existitzen dela, eta diskriminazioaren arrazoiak zeintzuk diren onartu behar izatea ere bai. Honaino ekarri ditugu instituzioak, hor kokatu dugu eztabaida patronalarekin, hasi gara enpresetako agendan arrakalaren auzia sartzen... ez da gutxi. Baina hor gaude.

Ezer gutxirako balio du “beti izango gara zorretan zaintza lanetan aritu diren emakumeekin” diskurtsoetara ekartzea, gero ez badago inolako borondaterik sistemak inposatutako baldintzetan egindako lan guzti horrek benetan balio duena aitortzeko, eta ez bada neurtzen emakumeoi suposatu digun kostu ekonomikoa zehazki zenbatekoa den, zor zaiguna ordaintzeko. Iruzurra da soldata arrakala dagoela aitortzea eta konponbidea lan merkaturatu kokatzea. Ongi baitakite ez dagoela halako aurrera urratsik egiteko lan harreman eredu demokratikorik; ezta indar harremanik edo egiturazko aldaketa lortzea helburu duen prozesu soziopolitikorik ere.

Arrakalaren aitortzaren borroka irabazi dugu. Sexuaren arabera lan banaketan oinarritzen den eredu iraultzea helburu izango duen prozesua behartzeko, urrats berriak behar ditugu ordea. Proposamenak hor daude: emakumeentzat gorde dituzten lanen balorazio berria egitea; zor patriarkala deritzogun aldagai zuzentzailearen bidez sektore feminizatueta soldadak gaurkotzea; zaintza lanak berarrantolatzea gizonen, emakumeen, komunitatearen eta sistema publikoaren artean banatzeko... ●

ANALISIA



Gizon hetero futbolariak

LEIRE ARTOLA ARIN

Otsailaren 19an 50 urte beteko lituzke Justin Fashanu (argazkian eskuinekoa) Erresuma Batuko futbolari profesionalak. Hain zuzen, egun hori da Kiroleko LGTBIfobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Fashanuk 37 urterekin bere buruaz beste egin zuen, eta haren omenez izendatu zuten eguna.

Fashanu lehen gizonezko futbolari profesionala izan zen publikoki esan zuena homosexuala zela, eta harrezkero presioak eta eraso LGTBIfoboak jasan zituela salatu zuen. Honela irakurri zitekeen 1990eko urriaren 22an *The Sun* egunkarian: “Milioi bat librazio futbolari izarra: GAY-A NAIZ”. Nottingham Foresten zebilen garai hartan, eta entrenatzaileak ez zuen begi onez ikusi iragarpena. Ika-mikak izan zituzten, eta haren taldekide batzuek ere aurkako mezuak zabaltu zituzten, esanez homosexualek ez zutela tokirik talde kiroletan.

1998an Fashanuri leporatu zioten 17 urteko mutil bati sexu eraso egin izana. Fashanuk ohar bat utzi zuen: “Konturatu naiz jada errudun gisa zigortu nautela. Ez dut gehiago izan nahi familia eta laguntzat lotsaizuna”. Bere buruaz beste egin zuen, eta hilabete batzuetara jakin zen kasua itxita zegoela, ez zegoelako frogarik.

Hamarkada bat igaro zen Olivier Rouyer jokalaria frantsesak publikoki iragarri zuen arte gaya dela, 2008an. Ordurako amaituta zuen futbol ibilbidea. Futbolaren historiako jokalaria guztien artean, soilik hamasei gizonek adierazi dute publikoki gayak direla. Futbolari profesionalak izan diren ehunka mila gizonezkoetik, hamaseik. Esan gabe doa zifra hori askoz handiagoa izango dela ziurrenik, baina askok erabaki dutela ezkutuan mantentzea, edota lau haizetara ez zabaltzea. Erabaki guztiz zilegia, noski, baina galdera asko sortzen dituena.

Jakub Jankto txekiarrak oraintsu zabaltu du bideo bat sare sozialetan, esanez homosexuala dela, eta gainerakoak animatu ditu beldurrik gabe euren buruak ezkututik ateratzera. Argi ikusi da 2022ko Qatarreko Munduko Kopan LGTBIfobia zein orokortua dagoen futboleko. Qatarretik helarazi zen mezua izan zen “denak ongi-etorriak” zirela, betiere jendaurrean afekturik erakusten ez bazuten. Ezkutuan aritzen baziren, alegia. Qatarren ez da legezkoa LGTB kolektibokoa izatea, munduko hiru herrialdetatik batean bezala. Eta FIFAk, horren aurrean, ez du LGTBIfobiaren aurkako ezer egin, praktikan behintzat. Munduko Kopan erabaki zuten “segurtasunagatik” LGTB banderak debekatuko zituztela estadioan, LGTBIfoboen erasoetatik “babesteko”. Babesteko, ezkutatu, berriro ere.

Asteotan notizia izan da Jakub Jankto gay dela. Baina notizia izan beharko luke horrelakoak oraindik albiste izate hutsak. Urrun gaude hortik: oraindik hamasei besterik ez dira ezkututik atera direnak. Eta gure herrietako taldeetan? Zenbat gizonezko ez profesionalak adierazi dute homosexualak direla? Agian futboleko gizontasun eredutik hasi beharko genuke auzia lantzen. ●

TEKNOLOGIA

Eraldaketa digitalaren etika



DIANA FRANCO

Arrakala digitala" murrizteko dauden laguntza guztien inguruan aritu naiz lankide batekin: eremu pribatutik, Europatik, estatutik, Jaurilaritzatik... Kakotxen artean jartzen dut arrakala digitala, berau gauzatzen hasi aurretik jada existitzen ziren arazo asko arrakala digitala izenez izendatzen gabiltzalako. Horrela, gai honetan lanean ari garenok, arrakala digitalaren aitzakiarekin, beste hainbat arazotan esku hartzen ari garela ikusten dugu. Besteak beste, irakurtzen ez dakien pertsona batek arrakala digitala duela esaten dugu izapide digital bat ezin duenean egin, baina arazo hori eraldaketa digitalik gabe ere existituko litzateke. Ulermen arazoak dituen haur batek internet bidezko lanak ez egiteari arrakala digitala deiten diogu, baina bere arazoak beste jatorri bat du. Nik ez dakit garbi balioesten "arrakala digitalaren" izenean egiten gabiltzan beste lan hauek onerako edo txarrerako diren. Beharbada, dena arrakala digitala ez izan arren, horren aitzakian inklusioa indartzen gabiltza. Edota beharbada benetako arazoari aurre ez egiteko adabakiak baino ez gara.

Bide honetan, gainera, ezin ditugu gure ikuspegi kritikoak aplikatu, sarri beste indar batzuen menpe lan egiten dugulako. Zentzu horretan interesgarria iruditut zait Europako Batzordeak atera berri duen Hamarkada Digitalerako Eskubide eta Printzipio Digitalei buruzko Europako Adierazpena. Horren arabera, izaera irekiko subiranotasun digitala bilatu behar da, eta eraldaketa digitalak honako balioak izan behar ditu: pertsonen eraldaketa digitalaren erdigunean kokatzea; elkartasuna eta integrazioa babestea; konektibitatearen, hezkuntzaren, prestakuntzaren eta gaitasun digitalen bitartez; algoritmoekin eta adimen artifizialeko sistemekin ditugun harremanetan aukeratzeko askatasunak duen garrantzia indartzea; eremu digital publikoan parte-hartzea sustatzea; ingurune digitalean segurtasuna, babesa eta ahalduntzea areagotzea, eta datuen pribatutasuna eta norbere datuen kontrola bermatzea; jasagarritasuna sustatzea. ●

NAZIOARTEA



Peru, eta orain zer?

AXIER LOPEZ

Peruko protesten aurkako armadaren errepresio bortitzak 60 hildako eta 1.300 zauritu inguru eragin ditu. Asko tiroz hil dituzte, fusilez. Bi hilabete baino gehiago igaro dira kolpe zibiko-militarretik, eta ordutik etengabeak izan dira protestak, errepide mozketak, aireportuen okupazioak, hiriburuko mobilizazio jendetsuak, lanuzte orokorrak... Intentsitate ezberdinez, baina altxamenduak aurrera darrai hegoaldeko eskualde batzuetan, hala nola Puno edo Cuscon.

Gobernuak balen indarrez agintzen jarraitu nahi du, baina perutarren %76k Boluarteren dimisioa nahi du, Peruko Ikerketa Institutuaren arabera. Pedro Castillo, bere aldetik, kartzelatik, *El Saltori* emandako lehen elkarrizketan dio Peruko presidentea bera dela.

Castillo eskuineko konplot baten biktima izan zen. Gaur egun protestan ari den nehorrek ez du hori zailtzen jartzen. Baina Castillo agintera eraman zuten herritar horiengan konfiantzarik eduki ez izanak kontrasesanak sortzen ditu. Castilloren gobernuak hasieratik egin zion uko herrialdea eraldatzeari mugimendu sozialetan babes harturik. Nazioartean ere bizkarra eman zien Amerikako ezkerreko gobernuak, hain zuzen ere orain Castillo babestu edota haren kontrako "estatu kolpea" salatzen duten gobernuak. Castilloren balizko itzulera agintera ez da adostasuna lortzen duen eskaera bat. Eragile askok hauteskundeak lehenbailehen egin behar direla dio, baina joko-arau

berriekin, jakin badakitelako hauteskundeak aurreratzeak ez duela gauza handirik aldatuko prozesu eratzaile batek lagunduta ez bada.

Borrokarako Kontseilu Nazional Bateratua (CONUL) herri matxinadan parte hartu duten eskualdeko mugimenduek osatzen dute. Premiazko hiru eskari ditu: Dina Boluarte boterea uztea, Kongresua ixtea eta Konstituzio berri bat idazteko Batzar Konstituziogilea eratzea. Plataforma inperialismoa salatzen du kolpearen bultzatzaile gisa eta konplizetzat jotzen ditu estatu-botere guztiak (Polizia, indar armatuak, Fiskaltza, komunikabideak, Eliza Katolikoa...). Kartzela eskatu dute Boluarterentzat, funtzionario kolpistentzat eta errepresioaren arduradunentzat.

Kontua da bi eszenatokiak oso zailak direla ezkerrentzat. Harrigarria litzateke Castillo berriro presidente gisa ikustea, eta hauteskunde berri batzuen aurrean hobekien kokatuta dagoena da Alberto Fujimori kolpista espetxeratuen ikaslerik onena, bere alaba Keiko Fujimoriaren ultra eskuina. Ez bada, herri matxinada giro horretan, ustekabeen figura aglutinatzaile bat sortzen, egun alternatiba instituzionalik ez duen ezkerrentzat.

Egoera ez da erraza. Ezkerreko mugimenduek dituzten balizko aukerak konplikatuak dira. Baina, orain dela bi hilabete inork gutxik uste zuen horrelako protesta olatu handia piztu eta gaur egunera arte iraungo zuenik. ●

'Euskaldunon Egunkaria' itxi zutela 20 urte

 ERREDAKZIOA

Otsailaren 20an bete dira 20 urte *Euskaldunon Egunkaria* Guardia Zibilak indarrez itxi zuenetik, Juan del Olmo Auzitegi Nazionaleko epailearen aginduz. "Euskarazko egunkaria itxi duzue baina hemen gaude": halaxe erantzun zuten langileek, biharamunean *Egunero* argitaratuta. Lau hilabetera sortu zen *Berria*.

2003ko operazioan hamar lagun atxilotu zituzten, eta bost egun egin zituzten inkomunikatuta. Egun horietan torturatuak izan ziren. Hurrengo egunean, *Egunero* ateratzea lortu zuten langileek, eta bi egunera, Donostian inoiz egin den manifestaziorik jendetsuena egin zen itxieraren aurka [argazkian]. 2010ean absoluzio epaia iritsi zen, eta 2014an auzi ekonomikoa itxi zen. Dena dela, mina eginda zegoen: "Inork ez digu ezer bueltatu", gogorarazi dute langileek.

HAMAR LAGUN ATXILO

2003ko otsailaren 20an, ostegunez, goizaldean abiatu zuten *Egunkaria*-ren kontrako polizia operazioa. Andoingo, Bilboko, Donostiako, Gasteizko eta Iruñeko egoitzetan sartu ziren guardia zibilak, besteak beste. Aldi berean, *Egunkarian* eta hura sortu zuen enpresan ardura postuak izan zituzten hamar pertsonen etxeetan indarrez sartu eta terrorismoaren kontrako legea baliatuta atxilotu zituzten: Joan Mari Torrealдай, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Pello Zubiria, Xabier Oleaga, Xabier Alegria, Fermin Lazkano, Luis

Goia eta Inma Gomila. Itxieraren unetik gogorrenak inkomunikazioaldiak izan zirela gogorarazi dute.

2010ean absoluzio epaia iritsi zen, eta 2014an auzi ekonomikoa itxi zen. Dena dela, mina eginda zegoen: "Inork ez digu ezer bueltatu"

'EGUNERO BEHAR GENUEN'

Egunkariaren itxiera "traumatikoa" izan zela azaldu zuen Imanol Muruak *Egunero behar genuen* liburuaren aurkezpenean, otsailaren 17an. Hamabi urte iraun zuen *Euskaldunon Egunkariak*, eta lau hilabetera haren lekukoa hartu zuen *Berriak*. Tarte horretan argitaratu zuten *Egunero* behin-behineko kazeta. "Egunkari prekario eta ez normala" izan zela gogorarazi zuten liburuaren aurkezpenean Imanol Murua Uria egileak, Iruñe Lasa Euskaldunon Egunkariako, Eguneroko eta Berriako kazetariak, eta Martin Anso editoreak. Lehen biak lanean ari ziren 2003an guardia zibilek Andoingo egoitzan indarrez sartu eta zenbait lagun atxilotu zituztenean. Gogoan dute segidan elkar-tu zirela *Egunkariako* langileak, eta





denek argi zutela biharamunean ere zerbait argitaratuko zutela. Hori izan zen *Eguneroren* hasiera, eta *Berria* sortu arte iraun zuen, lau hilabetez.

Egunkariaren itxieraren osteko erantzunean, “gakoa izan zen *Egunero*”, aurkezpenean azaldu zuten. “Espainiako Auzitegi Nazionalari eta Guardia Zibilarari esan genien: ‘Euskarazko egunkaria itxi duzue baina hemen gaude’”. Behin-behineko egunkariaren garrantzia azpimarratu dute, katebegi izan zelako: “Euskal egunkariak etenik ez izatea lortu genuen”. Halere, jakitun ziren egunkari prekarioa eta ez normalizatua zela, “nekez egin zitekeelako egoera hartan egunkari normalik”, Ansok berretsi duenez.

Lasak zehaztu du euskal kazetari-tzako “erresilientziaren ikurra” dela *Egunero*. Muruak gehitu du hiru osagai izan zituztela argitaratzerakoan: atxikimendua, elkartasuna eta amorrua. Hortik atera zen “inoiz gehien

saldu den euskarazko egunkaria”. Azaldu dute jendearen laguntzak bultzada handia eman ziela, eta ez dutela ahaztuko, besteak beste, Donostian egin zen manifestazio jendetsua. Jendearen erantzuna beste gakoetako bat izan zela azpimarratu zuten.

KONTAKIZUNAREN PUZZLEA

Egunkariaren itxieraren inguruan zenbait lan kaleratu dira, eta urtez urte errelatoa osatzen da. Imanol Muruaren *Egunero behar genuen* (2023) izan da azkena, baina egileak azpimarratu du puzzle osoaren beste pieza bat dela, eta orain artekoei egin die erreferentzia: Lorea Agirreren *Gezurra ari du* (2004), Pello Urzelaiaren *Amesgaiztoa*. *Egunkaria auziko epaiketaren kronika* (2010), eta Joan Mari Torrealdairen *Egunkaria*. *Gizarte Zibilarren arrakasta* (2021). Beste formatuetan ere hainbat lan kaleratu dira urteotan. ●

KLIMAREN AUZIAN ERABAKIAK BIDERATZEA DA ULTRA-ABERATSEN ESTRATEGIA

Klase ikuspegitik aztertzen du klima larrialdia Edouard Morena politologoak, eta *Fin du monde et petits fours: Les ultra-riches face à la crise climatique* ("Munduaren bukaera eta 'petits fours'-ak: ultra-aberatsak krisi klimatikoaren parean") liburua plazaratu berri du. Ultra-aberatsen neurrigabeko kontsumoa baino kaltegarriagoak ditu ondoko bi ardatzak: beraien dirutza zertan inbertitzen duten eta trantsizio-politikak kontrolatzeko eta bideratzeko darabiltzaten estrategiak.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Bistan da badirela beraien yate eta jet-set nazkagarriak, kabiak eta xanpain botelak, luxuzko bunkerak zein Niloko krokodilo edo zibellina larruzko berokiak. Ultra-aberatsek neurrigabeko kontsumo heina daukate eta badirudi klima aldaketan eragindakoz ez direla kontziente. Urtean batez beste 8.190 tona CO₂ ondorioztatzen ditu bilioi bakoitza bakar batek –herriar “ohiko” batek baino mila aldiz gehiago–. Baina Londreseko Unibertsitatean ikerlari den Edouard Morenak dio kontsumo horri begiratzea ez dela nahikoa. Kontsumitzaile izateaz gain, eragile ere direlako: “Klimaren aldeko konpromisoa hartzen duten ultra-aberatsak beraien boterea babesten saiatzen dira batez ere”.

Joera indibidualistatik harago, ultra-aberatsen klasearen iraupenerako eta aberasten segitu ahal izateko landuriko bideak xeheki aztertzen ditu Morenak *Fin du monde et petits fours: les ultra-riches face à la crise climatique* (“Munduaren bukaera eta ‘petits fours’-ak: ultra-aberatsak krisi klimatikoaren parean”). Bere tesia osatzeko, ondoko bi osagaiak xeheki ikertu ditu: beraien inbertsioak eta trantsizioaren aldeko inplikazioa.

“Daukaten aberastasunaren ikaragarriko heinak gaitu ultra-aberatsak eta herriar xumeok elkarrengandik bereizten. Baina dirua ez dute bururdiaren azpian gordetzen, proiektu klimatizidetan

inbertitzen dabilta”. Zifra bakar bat horren erakusle gisa: inbertsioen eragina kontuan hartuz, urtean 2,4 milioi tona CO₂ ondorioztatzen du ultra-aberats batek –ohiko herriar baten finantza inbertsioek, ordea, 10,7 tona CO₂–. Greenpeace eta Oxfam gobernuz kanpoko erakundeek iazko udan plazaraturiko datuak dira, Frantziako 63 bilioi bakoitza nagusiki inbertituriko enpresen karbono-aztarnari begiratu eta proportzionalki dagokiona bideratuz bakoitzari. “Beraien aktibo-zorroari –erran nahi baitu inbertsioei– begiratzerakoan gara ohartzen daukaten benetako klima eraginaz”, Morenaren hitzetan.

2000. urteaz geroztik, klase kontzientziazat “klase kontzientzia klimatikora” salto egin dute ultra-aberatsek: “Konbinatzen dira, batetik, erregai fosiletan oinarrituriko kapitalismoaren eraginen kontzientzia eta beraz ondorio negatiboak ttipitzeko gisan horren erreformatzeko beharra –beti ere irabaziak lortuz–, eta bestetik, aldaketa klimatikoa beraien klase interesentzat eta boterearentzat mehatxu izanaren kontzientzia altua. Horiei gehitu behar zaie finantza merkatuko mekanismoak eta ‘tekno-soluzioak’ [teknologia berrietan oinarrituriko aterabideak] bideratuz etekinak lortu ditzaketaren kontzientzia”, politologoaren arabera. Dakitelako “zaugarri” ere badi-rela, bai klima aldaketaren parean baita trantsizio politikoen aurrean ere.

Hortik dator klima eta trantsizio ekologikoaren politiketan kokatzeko estrategia –Morenak dioenez, luxuzko bunkerrak eraikitzea gauza bat da, baina ultra-aberats gehienek argi dute gehiago dutela irabazteko COP gailurren gisako hitzorduetan egonez–. Ondokoa dute helburu: eztabaida komeni zaien zentzura bideratzea eta erabaki politikoetan eragitea, beraien klasearentzako okerrera litzatekeena saihes-teko gisan eta beti ere, aberasteko gosea asetzeko. “Jet-set klimatikoak” izendatzen ditu klimatologo britainiar Kevin Andersonenak, beraien jet-set pribatua erabiliz dabiltzalako klimari buruzko gailur batetik bestera.

“KAPITALISMO BERDEAREN” BEHARRA, ABERATS SEGITZEKO

“Kapitalismo berdea” dute aterabide-tzat eta etengabe dabilta horren aldeko mezua predikatzen. Morenak argi utzi nahi du ultra-aberats ezagunak icebergaren punta baizik ez direla eta erabat estrukturatuta dagoela beraien estrategia: aditu, lobby talde, gobernuz kanpoko erakunde, *think-tanks* gogoeta laboratoriorio, NBEko burokrata, goi-funtzionario, zientzialari zein komunikatzaile, guztien artean lortzen dute “kapitalismo berdea” soluzio gisa saltzen. Diskurtsoa xeheki landua dute eta honen azterketa argia topatu deza-kegu *Fin du monde et petits fours* libu-



COP GAILURRETARA

argazkian ageri da Amazon-en jabe Jeff Bezos klimari buruzko COP26 gailurrean hitza hartzen. Erabaki gune horietan egon nahi dute ultra-beratsek, erabakiak bideratzeko gisan.

ruan. Nola ez, irakurketa ultra-liberala dute: estatuek ezingo diote aurre egin erronka klimatikoari, finantzaren eta enpresa pribatuen bidetik dator soluzioa. Urtez urte, COP gailurrez gailur doa uste hori errotzen. Pentsa, Abu Dhabi National Oil Company petrolio konpainiako zuzendari Sultan Al Jaber izanen da azaroan iraganen den COP28 gailurraren presidentea! Zein da beraz estatuen betebeharra? “Energia nazionalizatze politikekin edo garraio publikoa bermatzeko inbertsio masiboekin zuzenean esku hartu beharrean, inbertsio-funtsen eta trantsizioaren aldeko enpresen zerbitzura jarri behar dira gobernuak. Hori horrela, etekinak izanez gero eragile pribatuentzat dira, eta galerak badaude, Estatuarentzat,

hots, herritarrentzat”. Antolaketa hori martxan dela dio liburuaren egileak, eta adibidetzat dauka Europako Itun Berdea.

2009an Kopenhagen egindako COP15ean sentitu zen sukalde lanaren emaitza: “Epe luzera bi gradu ko beroke eta ez gaintitzearen helburua garaipen gisa ikusi zuten eliteek: karbono isurketaren apalaren aldeko trantsizioaren beharra zekarren, eta inbertsio ikuspegitik, kapitalismo berdearen bidea segurtatua zitzaien”. Helburu lauso hori betetze ko betebehara ala aldaketarik ez zitzaien behartu estatuei. Orduz geroztik, gutxi ala asko, horretan gara. Paraleloki, finantza merkatuan salerosi daitekeen balore gisa kokatzen dute karbonoa ultra-beratsek, eta ingurune naturaletan

inbertituz CO2 isurketak konpentsatzeko aukera soluzio gisa zabaltzen dabil-tza –nahiz eta nahiko argi geratzen ari den karbono-merkatuak ez dakarrela behar genukeen isurketen gutxitzea-. Hots, oinarrian duten helburua beterik dute: trantsizioa deitzen zaion horrekin aberasten segitzen dute.

Morenak ondokoa dio *Marianne* komunikabideari eskainitako elkarrizketan: “Ultra-beratsek eragozten dute ekologiari buruzko eztabaida”, kapitalismo berdea “soluzio bakar” gisa kokatzea lortuz. Klase gisa antolatutako estrategia hori kontuan harturik, are beharrezkoagoa zaigu “aldaketa klimatikoaz” hitz egin beharrean “justizia klimatikoaz” hitz egitea. Klase-borroka ere badelako klima larrialdiarena. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com





EZ DUGU IRLA BAT IZAN NAHI



Angel Prado Padua borrokalari venezuelarra Euskal Herriko hainbat tokitan ibili zen hilaren hasieran, El Maizal komuna sozialistaren berri ematen, Demokrazia Komunalaren Aldeko Nazioarteko Sareak gonbidatuta. Hernanin bildu ginen harekin, bere hitzaldiaren bezperan. El Maizalen bizirik eusten diote iraultza bolibartarraren grinari, eta, egoeraren zailtasunak ezkutatu gabe, kementsu mintzatu zaigu.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO

Venezuelako eremu menditsu batean jaio zinen 1981ean. Azalduko zeniguke nondik zatozen?

Hasteko, eskerrik asko elkarrizketagatik. Angel Prado Padua naiz, Venezuelako Errepublikako Bolibartarreko herritarra, El Maizaleko komunako kidea. Herrialdearen erdi-mendebaldean gaude, eta landa-eremu bat gara. Gure eremuan, aurreko belaunaldiak asko borrokatu ziren lurak ken ez ziezazkieten, baina azkenean laugarren errepublikako gobernuek eta sistema neoliberalak lurrik onenak lapurtu zizkion gure jendeari, lur zelaia alegia, eta monopolio handiei eman. Hala, gure familiek men-

dietara egin zuten, eta han geratzea erabaki zuten. Hori da gure jatorria. Hortik gatoz. Landako jendea gara, eta nahiz eta politikoki ez genuen informazio handirik teoriari buruz eta, nire familia ezkerreko ideiekin lotuta egon da beti. Kontzientzia bat izan dugu eta hainbat urtez itxaropena bizirik mantendu da. Gure senideek torturak jasan zituzten lurak ez galtzeko borrokatik, eta horrek eragin handia izan zuen hurrengo belaunaldietan. Niri amak kontatu zizkidan istorio horiek denak.

Borrokalari sozial gisa egin duzun ibilbidearen lehen mugarria: auzo

elkarte bat sortu zenuten jaioterrian.

1992tik aurrera, Venezuelako komunitate askotan, jendeak sentitzen zuen aldaketa politikoak izango zirela herrialdean, eraldaketa politiko handiak, eta herritarrek beharra zuten parte hartzeko, politikan parte hartzeko eta gazteak ere horretara lotzeko. Komunitateko adineko batek, oso maitea, auzokideen elkarte bat sortzeko aukera aipatu zigun, eta ni proposatu ninduen lehendakari gisa.

1997an izan zen hori. Gaztetxoa zinen.

17 urte eskas nituen, eta ez nekien zer egingo nuen zeregin horretan. Baina



Angel Prado Padua

PAUJISAL, VENEZUELA, 1981



Angel Prado borrokalari soziala Portuguesa estatuko mendietan jaio zen, nekazaritzari emandako familia xume batean. Gazterik hasi zen bere komunitatearen antolakuntzan eta lan politikoan parte hartzen. 2009az geroztik El Maizal komuna sozialistaren sorruntzan eta garapenean dihardu, eta 2021eko azaroan Simón Planas udalerriko alkate hautatu zuten.

nire hautagaitzak irabazi zuen, eta komunitateko kide horri errespetu handia zion jendeak. Beraz, gauzak antolatzen hasi ginen komunitatearentzat: eskolak, osasun-zentroak, nekazaritza kredituak... Chávez komandantea ez zegoen boterean oraindik, eta garai horretan instituzioekin jarduten hasi ginen, nola sartu eta kudeatu ikasten. Egiaz ez genuen ezer lortu, baina komunitateak bazuen antolakunde bat hari emana, eta komunitateko kideen aitortza zuena.

Eskola moduko bat izan zen gerora hasi duzuen biderako?

Gerora abiatu dugun eta gaur egun zeregin zehatzetan gauzkan bide horren ataria izan zen. Politikaren munduan hasteko modu bat izan zen, batez ere lan soziala egiten hasi ginen, arazoei heltzen eta ardurak hartzen, komunitateen arazo puntualei erantzuteko. Ez genuen ezagutzen klase-borrokari buruzko ezer, ez behintzat teorikoki; praktikan, berriz, bagenekien oligarkia Venezuelarrak gure familiari lurra lapurtu zizkiola, gaizki tratatu zuela, eta gure jendeak zioen Venezuelen zerbait garrantzitsua gertatu behar zela, altxamendu bat. Ez zuten iraultza aipatzen orduan, altxamendua baizik, lapurtu zigutena berreskuratzeko.

Handik gutxira iritsi zen Hugo Chávez agintera. 1999an izan zen. Nola oroitzen duzu garai hori?

Garai hartan asko hitz egiten zen lidergoari buruz, Chávez komandantearen lidergoari buruz batetik, baina baita tokiko lidergoei eta gidaritzei buruz ere. Modu bat aurkitu behar genuen lidergo hori hartzeko, politika parte-hartzailearen eta ez ordezkari-tzazko politikaren bidetik. Ikusi genuen auzo elkarteak jada ez zela tresna bideragarri bat komunitatearen politika egiteko. Ez genekien Chávezek kontseilu komunalen eta komunen bidea proposatuko zuenik antolaketamodu gisa, baina Chávezen kanpainarekin Konstituzioa aldatu zen eta horrek prozesu bat ekarri zuen marko juridikoa aldatzeko eta herritarrek egindako ekarpenak aintzat hartu ahal izateko. Horrek motibazioa piztu zuen oinarrietako lidergo horretan eta gazteengan ere bai. Gazteok hasi ta geunden ordurako politikan parte hartzen, eta horretan segitu genuen,

gure gurasoek Hugo Chávez onartu baitzuten nahiz eta militar bat izan eta militarrek kalte handiak eragin dituzten Latinoamerikan.

Zure ustez zeri zor zaio konfiantza hori? Zer ekarri zizuen Chávezek?

Militarra izan arren Chávez patriota gisa hartu genuen. Chávezek historia ekarri zigun, gure historia, aldarrikapenei buruz hitz egin zigun, esan zigun petrolioaren denona zela eta bagenuela eskubidea aberastasun nazionalera iristeko hobekuntza eta aldarrikapen sozialen bidez. Chávez komandantearen mezu horren bidez, jende askok erroto aldatu zuen eskuineko alderdiei botoa emateko ohitura edo identitate hori. Eta jendeak botoa eman zuen ez bakarrik Chávez presidentearen alde, baizik eta Venezuelako Errepublikako Konstituzioa aldatzeko promesaren alde, eta uste dut garai horretan hori asko zela, hasiera on bat finkatu zen eta konfiantza sortu zen. Chávezek ez zuen bilatu berak bezala pentsatzen zuen jendea, ez zen etorri Karl Marxekin —nahiz eta, ondoren asko aurreratu dugun marxismoan eta halako teorietan—, ez. Chávez Simon Bolibarrekin etorri zen, herriaren duintasunaz eta eskubideez hitz egin zuen. Eta horrek jende asko konkistatu zuen. Itxaropen handia eman zigun, batez ere gazteei.

Zein zen gazteen egoera orduan?

Gure belaunaldian jende gutxi lortu zuen batxilergoa egitea. Bizitza gogorra zen oso. Landa-eremutik hirira migratzea bultzatu zen. Landa-eremuak hartu nahi zituzten, hiria jendez bete, eta lana lortzea zaila izan zedila hirian, esku-lan merkearen eraginez.

Herrialde Katalanetan eta Euskal Herriko hainbat tokitan ibili zara azken egunetan. Zer moduz?

Bidaia hau oso garrantzitsua da. Uste dut lehenago egin behar genuela. Venezuelako dinamikaren eta errealtatearen poderioz, beharrei eta kontraesanei erantzuten dihardugu buru-belarri, eta batzuetan akats bat egiten dugu: tokiko mailan geratzen gara eta ez dugu osotasuna ikusten. Garrantzitsua da informazioaren berrizatea eta nazioarteko kontestuan kokatzea: batetik, daukagun hori gehiago baloratzeko; bestetik, dau-



kagun hori defendatzeko moduak aurkitzeko. Zentzu horretan, beharrezkoa da Venezuelen egiten ari garena kontatzea. Zergatik ez da erori iraultza? Sozialismoa lurraldetik eraikitzen tematu garelako. Oso utopikoa. Gaur egun, Venezuelako komunitate batzuetan beste modu bateko harreman sozialak eraikitzen ari gara, printzipio iraultzaileei helduta, horren fruituak jasotzen ari gara, eta oinarri sozial handi-handi batek eutsi dio proiektu horri; proiektua ez da indar militarren mendekoa izango, ezta gobernu baten mendekoa ere. Beharbada ez da guztiz herriaren esku egongo, baina lotsagabekeriari eusten diogun bitartean eta aldi berean ekintza bateratuak antolatzen baditugu, uste dut aterako garela gaur egun Venezuela dagoen egoeratik, eta esperientzia eta ahalegin hori zabaldu egin behar ditugu.

Komunikabide askotan bestelako irudi bat ematen da komunari eta zuen borroken inguruan.

Venezuelako burgesiak hiru etsai handi aurkeztu dituzte munduaren aurrean, deabruaren pare jartzen ditu, munduari sinetsarazi nahi dio Venezuela herri gaiztoa dela, chavismo herritarra gaiztoa dela eta Chávez, Nicolas Maduro eta komunak direla gure herrialdeak daukan gauzarik txarrenea, haien ondo-

rioz dagoela herrialdea halako egoeran orain. Hori aintzat hartuta oso garrantzitsua da nola hartu gaituzten hemen, nolako errespetua eta aitortza erakutsi dituzten gure borrokekiko, eta elkartruke hori, informazioa trukatzeko oso inportantea da.



Zergatik ez da erori iraultza? Sozialismoa lurraldetik eraikitzen tematu garelako. Oso utopikoa”

Hangoa jakinarazteko, eta hemengo ezagutzeko ere bai?

Erabat. Venezuelen, luza-roan, hemengo borroken aurkako kanpaina bat egin da, herri eta erakunde terrorista gisa aurkeztu zaituztete, eta horren harira beharrezkoa da herrien artean hurbiltzea. Elkartasuna eta internazionalismoa printzipio gisa, baina oso modu praktikoan, bakoitzak bere errealitatetik eta ahalmenetik, borondate handiz, gure herriak gertura daitezten. Herri gisa inperialismoaren aurka borrokatzen gara, eta arazo eta xede komunak ditugu, eta oso garrantzitsua da guk bizi izan dugun egoera guztia, batez ere komunetan erabakita gaudelako politikoki haztera eta aurrera egitera ekonomia komunalean, inperialismoaren aurka. Inperialismoak ez du barkatuko, eta borroka horretan nazioarteko elkartasuna behar dugu.

Nola ikusi duzu hemengo egoera?

Ba ikusi dugu nola antolatzen zireten, nola joaten zireten beste herrialde batzuetara, Palestinara adibidez, nola saiatzen zireten errealitatea ulertzen eta zuen kontraesanak lantzen, baina borrokari eusten diozue. Zuek kapitalismoaren zentroan zaudete. Latinoamerikan oso gertu daukagu Osaba Sam, baina beste baldintza batzuk daude azkarrago iristeko boterera eta kontrola eskuratzera, gure independentzia defendatzeko eta demokrazia komunitario eta osoko espazioak sortzeko, eta hala bizitza bermatzeko. Bidaia hau eskola baten modukoa izan da, egin behar zen. Hemengoari buruz gauzak kontatu zizkiguten lehendik, gu ikustera etorri izan zarete, eta hemendik aurrera ere trukean segituko dugu. Zuek lagun gaitzakezue, eta guk ere ekarpenak egin ditzakegu handik.

2009an sortu zenuten El Maizal komuna, eta martxan segitzen duzue 13 urte geroago. Urtea hasi berritan, eta azken hamarkadako esperientziaren eskarmentuarekin, zein dira zuen erronkak?

Gaur egun erronka handiak ditugu Venezuelen; esate baterako, mundu komunalean, komunak ezin du utzi instituzio burgesaren logika errepika dadin, hau da, ustelkeria komunez jabetu dadin. Beste erronka bat, gure eredu ez dadila murriztu halako lu-





rralde batean gertatzen den gauza interesgarri batera, ez dadila hor amaitu, ez gaitezela izan irla bat, ez gaitezela izan lurralde bateko azken ameslariak: oraindik ere chavismoaren erlikia bati eusten dioten azken ameslariak. Eraiki nahi dugun eredu bat da. Eta eredu horrek arrakasta izango du konfiantza eragiten duen neurrian, jendeak bere egiten duen neurrian eta jende asko antolatzen den neurrian, erakusten baldin badugu herriak ahal duela, herri pobreak ahal duela, antola daitekeela, eta boterea izan dezakeela. Hori argi eta garbi ulertu dugu El Maizalen.

Herrialdeko beste komuna batzuekin ere elkartu zarete Unión Comunera mugimendua sortzeko. 2018tik aurrera elkartruke oparoa izan dugu herrialdeko beste komuna batzuekin. Kontraesan handiei aurre egin behar izan genien garai hartan, baita gure gobernuari zegokionez ere. Ko-

munatik kanpora ateratzea erabaki genuen, autoisolateari utzi genion, eta gu bezala pentsatzen ari zen jendearekin bildu ginen, bakarrik sentitzen zena eta ekinean segitzen zuena.

Urte hori giltzarri izan zen?

Bazirudien guztiaren amaiera zela: blokeoak, egoera ekonomikoa, monetaren debaluazioa, herrialdearen dolarizazioa... Amesten segitzen genuen bakarrak ginela uste genuen, eta, hala baldin bazen, pentsatzen genuen amaitu egingo zela, borroka bukatuko zela. Beraz, oso garrantzitsua eta estrategikoa izan zen herrialdeko beste komuna batzuekin elkartzea: esperientziak eta ideiak trukatu genituen, konfiantza eraikitzen hasi ginen, elkarri bisitak egiteari ekin genion, eta, azke-

nean, lau urtez harremanak izan ostean, herrialdeko 66 komuna elkartu gara erakunde nazional bat osatzeko, xede argi batzuekin: borroka programa bat daukagu, herri-oinarri sendo batekin eraikia, eta estatutu batzuekin.

Gaur egun, komunen mugimendu nazionalak inoiz baino argiago sinestenu du prozesua defendatu behar dela, gure antolakuntza eraikitzen segi behar dugula bakearen bidetik. Zoritxarrez, ikusi dugu inguruko herrialdeetan, Kolonbian, Brasilen, nola zanpatu nahi izan duten herriaren mugimendua. Venezuelan aukera eta baldintza handiak ditugu aurrera egiteko. Ez bagaituzte tristurak eta gabeziak harrapatzen — osasungintzako eta beste zerbitzuetako gabeziek adibidez—. Komuna ez da gobernuen edo ministroen ardura. Komuna sorkuntza heroikoa da, [José Carlos] Mariategik zioen moduan. Horrexetan ari gara. Komuna ez dago eraikita, prozesu bat da eta ekintza konkretuen bidez gauzatzen da. Utopia posible izango da baldin eta teoriak eta ametsak ekintza zehatz bilakatzeko badira.



Ereduak arrakasta izango du erakusten baldin badugu herriak ahal duela, herri pobreak ahal duela, antola daitekeela, eta boterea izan dezakeela

Elkarriketa amaitu aurretik beste zerbait esan nahi zenuke?

Eskertuta gaude zuekin. Espero dugu zuen independentziaren alde borrokan segituko duzuela. Espero dut egunen batean herrialde honetara itzultzea eta geurearen jabe izan gaitezela, estatu zapaltzaileak ez dezala lapurretan segitu. Estatu horrek min handia egin zigun Latinoamerikan, aspalditik. Eta uste dut justua dela herriak altxatzea eta iraultza gauzatzea. Eskerrik asko. ●



**EUSKAL HERRIKO
HAZI EKOLOGIKOAK**

Leunda Berri Baserria
Beizama, Gipuzkoa



**EGIN ZURE
HAZI ESKAERA!**

www.aleka.eus



. BASERRITARRAK SAREAN
. AGROEKOLOGIA
. BIOANIZTASUNA
. BERTAKO EKOIZPENA



Iritziak

Errusiar inbasioa eta alemaniar umiliazioa



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Urtebete igaro da Errusiak Ukraina inbaditu zuenetik eta orduan ez genekizkien gauza asko argitu eta susmo batzuk frogatu dira. Adierazgarrienetako bat da Petro Poroxenkok eta Volodimir Zelenskik azaldu dutena, esanez Kievek ez zuela inolako asmorik Minskeko bake akordioak betetzeko. Akordio horiek Ukrainari berrarmatzeko eta indartzeko denbora emateko helburua zutela aitortu dute Angela Merkelek eta François Hollandek ere bai, biak bake protokoloaren sustatzailer nagusiak.

Gerra programaturik zegoen RAND korporazioak (Pentagonoaren zerbitzura dago 1948tik) 2019ko txosten ospetsuan azaldu bezala. NATOk idazkari Jens Stoltenbergek adierazi du 2014tik NATOk aurrekaririk gabeko laguntza militarra eman diola Kievi, bere indar armatuak entrenatuta, ekipatuta eta babestuta. Ardatz anglosaxoiak Ukraina erabili nahi zuen Errusiari gerra egiteko, horregatik, AEBetako defentsa idazkari Austin Lloydek garbi utzi zuen inbasioa hasi eta aste batzuetara egin zituen adierazpenetan: "Errusia ahuldu nahi dugu". Horretarako gerra luzea behar zutenez, anglosaxoiek bake akordioak lortzeko saiakera guztiak oztopatu dituzte. Berriki Israelgo Lehen ministro ohi Naftali Bennett-ek azaldu du errusiar-ukrainiar gerraren hasieran egoniko negoziazioetan bitartekaritza lana egin zuela, eta bi parteen gauzak bide onean

Ardatz anglosaxoiak
aspaldi programatu
zuen gerra, baina
2022ra arte ez zuen
erabat eztanda egin,
Alemaniak eta Errusiak
ez zutelako nahi

jartzeko borondatea zutela, baina AEBek eta Erresuma Batuak sabotatu zituztela elkarriketak. 2022ko apirilean antzera gertatu zen, orduan Turkian Erdoganek buruturiko bitartekaritza lanarekin ia bake akordioa lortu zuten, baina azkeneko momentuan, Ukrainaska Pravda hedabidearen arabera (Zelenski zalea) AEBek eta Erresuma Batuak negoziazioa bertan behera uztera behartu zuten Ukrainako Gobernua.

Ardatz anglosaxoiak aspaldi programatu zuen gerra, baina 2022ra arte ez zuen erabat eztanda egin, Alemaniak eta Errusiak ez zutelako nahi, beraien ekonomiak kaltetu zitzakeelako; horregatik, germaniar-errusiar lankidetzak ekonomikoak jarraitu du, 2018an North Stream II gasbidea eraikitzen hasi zirenean bezala. Halere, 2022ko otsailaren 24an, azkenean Errusiak nazioarteko legedia

hausten duen erabaki kriminala hartu zuen, eta inbasioa hasi zuen. Jazarpena eta bazterketa sufritzen duen ume batek pazientzia galdu eta arma bat hartuta, eskolara tiroka sartzen denean bezala izan da. Sobietar Batasuna erori zenetik Errusiari egin zitzaizkion promesak eta sinatu dituen akordioak bata bestearen atzetik ezerezean geratu dira, eta geroz eta jazarriago sentitu da.

Urtebeteren ostean, militarki Errusiari ez doakio batere ondo. Irabaztea edo galtzea erlatiboa da espektatibekin duelako zerikusia, horregatik, Mosku galtzen ari da, nahiz eta kaltetu nagusia ukrainar herri xehea izan. Dimentsio ekonomikoan, berriz, Errusiaren kontrako Mendebaldearen gerran antzekoa gertatzen da: hasi zutenen espektatibak kontutan hartuta, Errusia irabazten ari da. Halere, Mendebaldeko herrialdeen artean galtzaile nagusiak Europar Batasuna eta bereziki Alemania dira.

Gatazka honetan aberastasun transferentzia handia gauzatzen ari da Mendebaldeko Europatik AEBetara, baina ez da hori soilik, Alemaniak ikusi du bere ustezko aliatuek berak bultzaturiko bake akordioak sabotatu dituztela, eta Errusiatik Alemaniara gasa eramaten duten gasbideen kontra eraso egin diotela; dena alemaniar ekonomiaren kaltetan. Bitartean, Berlin ez da gai ezer esateko bere interes nazionalaren defentsan, itsu, mutu, gor dago umiliazioa pairatzen. ●

Euskararendako ideologia bat gazteentzat, mesedez



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Institutura itzuli naiz duela pare bat aste, denbora batez baimen egoeran egon ondoren, eta aspaldiko partez, D eredura. Gogotsu nengoen gaztetxo "euskaldun"ekin topatzeko, urte luzeak egin ditudalako A ereduaren eta Lapurdiko B eredu modukoan –hezkuntza nazional frantsesean–, eta nekatuta bainengoen euskaldunok halakoetan sentitu ohi dugun arrotasun egoeraz. Euskarara irakasten aritzea, baina hain mundu paraleloan, ezin izanik ikasleekin euskara hutsez erlazionatu, edo naturalki euskal kultura bizi, edo erreferentziak eta mundu-ikuskera partekatu.

Pentsatzen nuen etxeko goxora itzultze moduko bat izango zela, baina hara non ikusi berri dudana dena fantasia hutsa izan dela, ameskeria galanta. Bai, egia esan, asko tristetu naiz ikasleen hizkuntza-jokabidea ikusita, erdararekiko joera ia erabatekoa dute, baina hortik areago, beren hizkuntza-hautuarekiko halako harrotasun moduko bat erakusten hasi dira, lotsagabekeria handiagoa, guri ere erdaraz egiten digutela, damu eta ahalge izpirik batere adierazi gabe gure ohartarazpenen aurrean. Kezka-tzekoa.

Ez nuke ikasleen kontra bakarrik jo nahi, nahiz eta onartu behar dudana oso barneko fibra bat ukitzen didan kontua dela hizkuntzarena, eta hala izaki, aha-

legin berezia egin behar izaten dudala erreaktibotasunean ez erortzeko, harremana arriskuan ez sartzeko. Errazena ardura guztia beraien gain jartzea litzateke, baina analisi sinple eta inozentea litzateke inondik ere, gu ere bagarelako erantzule, eta badakigulako zuzenean interpelatzeko gaituela gazteek egiten duten guztiak. Gustatu ez arren, gure ispilu dira, garenaren sintoma eta ondorio zuzen.

Erdara modu desafiatzailean erabiltzearen arrazoia, gazteen beharrak batere kontuan hartu gabe segitzen duen hezkuntza-eskaintzaren erreakzio modu bat dela iruditzen zait, edo hala dela pentsatu nahi dut behintzat. Gu gara sistema horren agente, eta erdarak ematen digun minaren jakitun direnez, horren kontrako amorrua adierazteko modua topatu dute horretan, arma eraginkor bat. Sintoma da, eta duena baino garrantzia handiagorik ez ematen saiatzen naiz.

Eta erdaraz aritzeko inertzia hori, edo euskaraz egiteko zailtasunarena, gure mendekotasun eta zapalkuntza egoerak esplikatzen du, horrek sortzen duen diglosia gero eta handiagoak. Herri menderatuak, gutxietsia eta azpiratua du hizkuntza ere, eta nekez lehiatu daiteke euskara erdararen nagusitasun osoarekin, gazte baten begietara, behi-

nik behin. Zein hizkuntzari helduko zenioketen zuek, gazteak bazinete, Iruñerrian (adibidez)?

Herriaren normalizazioan (independentzia) ezarri beharko genuke arreta, eta horretara bildu gure indar guztia, horixe da-eta euskarak duen gaitzerako sendabide bakarra, badakigu. Politika gorenaren eremuan jotzen da hizkuntzaren biziraupenaren partida, eta konponbidea ez dago, hortaz, hezkuntzaren esku, edo ez behintzat bakarrik. Baina, zerbait egin al daiteke gure eremuan? Jakina baietz. Gure ikasleak soziopolitikoki alfabetatu, euskararen arazoaren testuinguratze egokia eginez, gertatzen zaigunaren arrazoiak garbiki azalduz. Ez da asko, baina zerbait bada.

Emakumeon zapalkuntzari hezkuntzan ere ematen hasi garen trataeraren antzeko zerbait egitea, adibidez, ez da hain zaila. Arazoa zapalkuntza-sistema handiago baten baitan –heteropatriarkatua– ulertu behar dela esaten zaie ikasleei, eta marko egokian kokatzen laguntzen duen ideologia baten tresna –feminismoa– eskaintzen. Zergatik ez dugu berdin jotzen euskararekin? Zergatik ez ditugu berreskuratzen *inperialismo* edo *nazio-zapalkuntza* kontzeptuak?

Ez dakit, baina datuak alarmanteak dira. Yuppiren munduetatik ateratzeko garaia heldu da. ●

Mugarriak ipini; mugatu



**ZIGOR ETXEBURUA
URBIZU**
EUSKALTZALEA

Harluxet hiztegi entziklopedikoak izenburuko hitzekin azaltzen du *zedarritu* aditzaren esanahia. Izen horren pean biltzen diren sona handiko kapitalista lukurreroek aldarrikapen bat ezagutarazi dute: *Autonomia Erkidegoaren premia*zko *erronka da hezkuntza sistema malgua diseinatzea, hainbat lurraldetatik datozen edo mugitu beharra duten familiek irtenbide errazak izan ditzaten beren seme-alaben hezkuntza ibilbideetarako*. Zehaztasun gehiago gabe, galdera ugari sortu dira: zein lurraldetatik datoz? Zer esan nahi du mugitu beharrak, aldi batean besterik ez direla egongo? Irtenbideak erraza behar badu, badaude zailagoak direnak? Eta zein da, bada irtenbide “erraz” hori? Baina, zein da, bada, arazoa?

Urkulluri deserosoegia egingo zitzaiolakoan, pentsatu bai, baina esaten ez duen ideia hori argiegi adieraztea, nahita utzi dute aldarri mugatua, motza, airean. Beste bat arduratu da hori zehazteaz, euskaraz zer edo zer argitaratzeagatik dirulaguntza handia (handiena) jasotzen duen egunkari bateko maiseatzaile bat, eta euskarazko hezkuntza seinlatu du arazo iturri gisa; baina ez gaitzala piano jotzailearen lainezak itsutu: doinua neoliberalen sui-

te bat da, euskaldunoi datorkigunaren preludioa eta guzti.

Euskaldunak enbarazu gara kapitalarentzat, mozkinik gabeko kostua baitira gure eskubideak bermatzea eta gure kultura duintzen laguntzea. Merkatuak kulturaren uniformizazioa bultzatzen du, errazago saltzeko, gainbalioa eta aberastasunak biderkatzeko. Horrela, bizpahiru hizkuntza nagusirekin aski eta sobera dute; beraiena tartean sartuta, jakina. Bestalde, liberalismoak berez merkatuen desarautzea bultzatzen badu ere, jakina da mesedegarri zaizkion arauak ezartzen dituela. Horregatik, euskarazko hezkuntza oinarritik pitzatzera joko dute, eta bultzatuko dute hezkuntza eredu uniformizatzailearen bat; ez dute alferrik atera gaia Hezkuntza Legearen eztabaidarekin batera. Eta bide batez, hizkuntza nagusien nagusikeria naturalizatzen jarraitu dute.

Horiek ari dira; eta gu, euskaldunok? Lagako al diegu eraisten eraikitzeke hain ahalegin handia behar izan duena? Argitu eta lau haizetara ezagutaraz ditzagun zein mugarri igaro behar dituen euskarak garapen hazkor esanguratsua izateko. Zedarritu dezagun euskararen aurrerabidean jarraitzen lagunduko digun bidea, atzera urratsik onartu gabe, ustez, abaila hartzeko balira ere. ●

Idazten laguntzen diguten gauzez



**CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA**

Lorategi bat zaintzeak idazten laguntzen du. / Leihotik begiratzeak idazten laguntzen du. / Lehenago egon ez den leku batera bidaiatzeak idazten laguntzen du. / Udako egun batean bideari jarraiki gidatzeak idazten laguntzen du. / Batzuetan, Miguel Bosé entzuteak idazten laguntzen du. / Asteko egun batean arratsaldeko lauretan dutxatzeak idazten laguntzen du. / Astegun batean arratsaldeko ordu bietan zinemara joateak idazten laguntzen du. / Zereginik ez izateak ez du idazten laguntzen. / Zorigaiztoko samar sentitzeak, batzuetan, idazten laguntzen

du”. Leila Guerrieroren testua gustatzen zait, idazten laguntzen diguten gauzei buruzkoa. Nik elurra gehituko nuke; elur malutak aurrez aurre datozkizunean parabisarantz. Erdi lo nagoenean jendeak edukitzen dituen elkarrizketak hegazkinetan. Larunbat goizetako kafea tren geltokitik gertu dagoen tabernan. Laura Ferroren Instagrama; baina, ororen gainera, idazten dudana lerro bakoitzak hobe egiten nauela sinistea. Guk mundua aldatu ez, baina geure burua mudatzen ari dela prentsatzek. Izan ere, idaztea sineste ariketa bat da. ●

Bitartean



MIKEL OTERO GABIRONDO
LEGE BILTZARKIDEA

Asko hitz egin eta idatzi da azken hilabeteotan eskala handiko energia berriztagarrien proiektuen inguruan. Modu batean edo bestean, hamaika aldiz errepikatu dira aurkakotasuna mamitzeko arrazoiak, izan enpresen irabazi gosea, biodibertsitatearekiko inaktua, planifikazio falta, nekazaritzarekiko lehia, material zehatzen urritasuna edo beste hainbat. Guztiok kezkatzen gaituzten kontu horiek buruan, posizionamenduetan ñabardurak daude. Batzuk “horrela ez” diote, besteek, aldiz, “hemen ez” eta bada “inon ez” esaten duenik ere. Dena den, bada joera orokortu bat, gaiaren inguruan hitz egin eta idaztera animatu direnen artean (ez dira gutxi), trantsizio energetikoan lehendabizi zer egin behar den azaltzeko; “lehendabizi kontsumoa murriztu behar da”, “lehendabizi gelditu eta pentsatu egin behar da”, “lehendabizi gune degradatuak erabili behar dira”, “lehendabizi indar harremanak aldatu behar dira”. *Lehendabizi* horien guztien aurrean, galdera berdina datorkit burura: bitartean, zer?

Ze bitartean, Kortaturen esaldia go-goan, *kriston gasa dabil!*

Berriztagarriak
hedatzearen balizko
kalteen parean,
berriztagarriak ez
hedatzearen eguneroko
kalteez gehixeago hitz
egin beharko genuke

Bitartean, Santurtziko portuan mundu zabaleko gas fosilaren sarrerak errekor historikoa hautsi du. Bitartean, Hego Euskal Herrian kontsumitzen dugun elektrizitatearen %70 sortzeko, gasa erretzen dugu, eta EAEn zenbaki hori eskandaluzko %90era igo zen iaz. Ez nolanahikoa, gainera, hein batean frackingaren bitartez lorturikoa, nahiz eta “fracking ez, ez hemen, ez inon” oihukatu genuen. Bitartean, kontsumoak ez ditugu modu nabarmenean jaitsi, are gutxiago eten. Bitartean, batez beste 8 tona CO₂ isuri genituen iaz Euskal Herrian pertsona bakoitzeko, hortik asko

elektrizitatea sortzen, eta larrialdi klimatikoa eta biodibertsitate krisia areagotzen. Bitartean, diru publikoa birgasifikazioan, gas zentral termikoetan edo Euskal Herrikan kanpoko gas ustiaketan inbertitua dago. Eta horri buruz gutxi hitz egiten bada ere, negozio horien etekinek ordaintzen dute autokontsumo berriztagarriko ematen diren laguntza publikoen zati garrantzitsu bat. Bitartean, gas goseak eragin duen prezioen eskaladak guri estuasunak sortu dizkigu, baina prezioen igoerari eutsi ezin izan dioten herrialde txiroei argi mozketak larriak ekarri dizkie, izan Pakistan, Bangladesh edo beste hainbat.

Hori horrela, nago ni berriztagarriak hedatzearen balizko kalteen parean, berriztagarriak ez hedatzearen eguneroko kalteez gehixeago hitz egin beharko genukeela, ze berriztagarrien tamainak edo kontsumoak jaisteko egin beharrekoak eztabaidatzen ditugun bitartean, eguneroko gupil zoro jasanezinak hor darrai. *Lehendabizi...* dena batera egin behar da! Egin dezagun tentuz eta guztion hobebeharrez, baina ez ditzagun eztabaidak trantsizioa atzeratzeko baliatu, bitartean fosilak errez amildegira goaz eta. ●

ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO A 2023.

URTARRILAK 27 IDATZIZKO 6 TALDE

MARTXOAK 25 BAT-BATEKO 12 TALDE

300 PARTAIDETIK GORA

12 KANPORAKETA, 3 FINALAURREKO ETA FINALA

www.bertsozale.eus/araba

Bereizle nagusiak:

Araba Foru Aldundia Eusko Lehen Maila Foruak

Vital FUNDACIÓN FUNDACIÓN

LABORAL Kutxa

udapa FACILE

artepan

ARGIA



Gipuzkoa

*berdea, orain
eta beti.*

Gure
ingurua zaintzea
zure baitan dago.

Etorkizuna Orain.

etorkizunaeraikiz.eus

IONE LARRAGO

Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN

SEXU ABUSUAK ELIZAN

Botere harremanen borreroak eta gatibuak

Eliza Katolikoaren barruan izandako sexu abusu eta pederastia kasuek hedabideetako orrialde ugari bete dituzte, *The Boston Globe* egunkariak duela bi hamarkada, 2003an, Pulitzer saria jaso zuenetik, Bostongo artzapezpikuaren abusuak azaleratzeko egindako lanagatik. Baina biktimek bizitako dramari jarri izan dute arreta medio gehienek, ez hainbeste erasotzaileengan, are gutxiago inpunitate hori sortu duen boterean eta arauetan. Euskal Herria ez da salbuespen, hemen ere izan dira isilduak eta isilaraziak, borreroak eta gatibuak.

 URKO APAOLAZA AVILA

Elizaren kultura oso bat jarri behar da zalantzan, abusuak, manipulazioak, erasoak, gezurrak eta baita heriotza bera ere ekarri dituelako. Veronique Margron moja dominiko eta Frantziako Erlijiosoen Konfederazio Nazionalako (Corref) buruak hori esatea, zerbaiten seinale bada. Erakunde horren bultzadaz jarri zen martxan Frantziako Eliza barruan izandako sexu abusuak ikertzeko batzorde independentea. Margronen hitzek azkenaldiko eskandalu handienetako bati erantzuten die: Jean Vanierren kasuari.

Jean Vanier teologoa oso ezaguna zen, L'Arche izeneko erakundea sortu eta desgaitasuna duten pertsonekin mundu osoan egindako lanagatik. Kondekorazio

ugari jaso zituen zeregin hori aitortzeko, eta Bakearen Nobel Sarirako hautagai ere izan zen ez gutxitan. 2020an, Vanier hil eta urtebetera, *La Croix* egunkari katoliko kontserbadoreak albiste harrigarria argitaratu zuen: Vanierrek gutxienez sei emakumeren kontrako abusuak egin zituen Thomas Phillipe bere aita espiritual dominikoarekin batera; 1950eko hamarkadan gidatzen zuten Parisko komunitate erlijiosoan izan ziren gehiegikeriak. Dirudienek, garai hartako salaketa batzuk medio, eliz agintariak Phillipe Hego Amerikara bidali zuten aldi baterako. Horren ondotik sortu zuen 1964an L'Arche Vanierrek.

Albiste zabaldu eta berehala, teologoaren aldekoek argudiatu zuten Va-

nier laikoa zela, emakumeak helduak, tartean ez zegoela desgaitasunik zuen pertsonarik... Hortaz, zer arazo zegoen "harreman mistiko-erotiko" horiekin? Baina Dominikoek eta L'Arche erakundeak ikerketa sakonagoa publikatu berri dute urtarilaren 30ean. Ehunka orrialde dituen txostenean kontatzen dute abusuak hamarkadez iraun zutela eta gutxienez 30 emakumek salatu dutela gertatutakoa. Kontrola, autoritatea, bortxa, beldurra... Horiek erabiltzen diren hitzak. Derrigortutako abortu bat ere erregistraturik dago. Txostenaren egi-leen ustez, hasierako salaketan aurrean Elizak izandako jarrera epela giltzarri izan zen egoera hura denboran hainbeste luzatzeko.



Elgoibarko eliza ondoan
haurrentzako jolastokia. Herri
horretan ere salatu izan dituzte
elizaren sexu gehiegikeriak
hainbat herritarrek.

JON URBE / FOKU

BOTERE HARREMANAK, BELDURRA ETA INPUNITATEA

Botere harremanek sortzen dituzten beldur mekanismoek eta zigorgabetasun historikoak ahalbidetu dute Eliza Katolikoa izatea sexu abusuak masiboki egin diren munduko erakunde nagusia, batez ere haurren artean.

Pedokriminalitateari buruz publiko egin den azken ikerketa handian, Portugalgo Gotzainen Batzarrak otsailaren 13an aurkeztua, 4.815 kasu identifikatu dituzte herrialde hartan, 1950etik aurrera gertatutakoak. "Izebergaren punta" omen dira. Biktimek batez beste 11 urte zituzten abusuak jasan zituztenean, eta horietatik %77k ez du sekula ezer kontatu, nahiz eta urte asko igaro diren -kasu ia guztiak preskribatuta daude-. Ez da gehiegi arakatu behar jakiteko zer-gatik isildu diren orain arte.

"Niretzat apaizak aginduak ematen zituen zen, eta ezin zen hori zalantzan jarri". Hala kontatu zion Berriako Jone Arruabarrena kazetariari Elgoibarren Don Andoni izeneko apaiz baten abusuak jasandako biktimetako batek. Igan-detan, latina erakutsi beharrean ukituak egiten zizkion bere etxean sotanadunak, harik eta ezetz esateko indarra bildu zuen arte: "Handik gutxira, Don Andoni desagertu egin zen Elgoibartik".

Kasuren bat argitara ateratzen den bakoitzean, biktima da berriz ere jendaurrean biluzten dena

Elgoibarko kasua beste askoren erakusgarri da: Elizako ordezkaria testuiguru politiko eta sozialak ematen dion autoritateaz baliatzen da abusuak egiteko, eta salaketa bat dagoenean, iskanbila sortu aurretik eliz agintariak tokiz aldatzen dute. Horixe gertatu zen Manuel Estomba Derioko Seminarioko zuzendari espiritualarekin, ARGIA 2019an azaldu genuen bezala; hainbat ikasleri sexu-abusuak egin ostean Ekuadorrera bidali zuten misiolari.

Kasuren bat argitara ateratzen den bakoitzean, biktima da berriz ere jendaurrean biluzten dena. Erasotzailearen berri apenas dugun, eta ondorioz,

askotan bere prestigioa mantentzen da -Estombak oraindik parke bat du bere izenean Irunen-; eta are gutxiago dakigu Elizako hierarkian halako kasuak estaltzeko izandako konplizitateez.

BOSTONDIK BERMEORA, KASUEN EZTANDA

2002ko urtarrilaren 6an *The Boston Globe* egunkariak izenburu deigarria zekarren bere azalean: "Elizak apaizen gehiegikeriak baimendu zituen urtetan". Egunkariak azaltzen zuen nola saiatu zen Bostongo artxidiozesia estaltzen dozenaka abadek haurrei egindako sexu abusuak; milioika euro ordaindu zituen tokiko hedabideen, abokatuen eta erakundeen isiltasuna erosteko.

Ez zen lehen aldia Eliza barruko pederastia argitara ematen zena, baina hilabete askotako ikerketa-kazetari-tza lan hark AEBetako Eliza Katolikoa-ren habeak mugiarazi zituen eta kasu gehiago azalerazi. 2003an Bostongo kazetari taldeari Pulitzer saria eman zioten. Urte batzuk geroago Thomas McCarthy zine zuzendariak pantaila handira eraman zuen historia hura, *Spotlight* izenarekin, eta pelikula one-naren Oscarra irabazi zuen.

Bi hamarkadotan, eta batez ere azken urteetan, pederastiaren inguruko albiste



Nafarroako Abusuen Biktimen Elkarteak hainbat ekimen egin ditu eliza barruko pederastia salatzeko. Irudian, Iruñeko artzapezpikutzan aurrean elkarretaratzea.

eta ikerketek gero eta gehiago estutu dute Vatikanok zuzentzen duen elkarte erlijiosoa. 2018an, elizako abusuei aurre egiteko ECA Global erakundeak zenbakia jarri zion errealtate gordin horri: munduan 100.000 pertsona inguruk jasan dituzte sexu gehiegikeriak Elizaren baitan.

Baina kopurua askoz handiagoa izan daiteke, Frantziako Estatuko batzorde independenteak emandako datuari so egiten badiogu behintzat: soilik herrialde horretan 330.000 haurrek jasan dituzte abusuak Elizako hiru mila ordezkarien eskutik, 1950 eta 2020 urteen artean. Abusatzaileetako batzuk –hamahiru apaiz– Baiona, Oloroe eta Leskarrereko elizbarrutikoak dira, eta 21 adin txikikori egin zizkieten gehiegikeriak. Datu hori handitzen ari da ordea: Urdin Euskal Herri Irratiak filtratu duenez, jandak hogeita hamar izan daitezke diozesi horretan jarritako salaketak eta, honek, 250.000 euroz indemnizatuko ditu biktimak. Espainiako Estatuan, aldiz, *El País* egunkariak bere kabuz ikerketa abiatzea erabaki zuen –ekimen ofizial baten faltan– eta Elizari loturiko ia bi mila sexu abusuren kasuak jasotzen dituen datu basea egin du publiko. Horren arabera, Hego Euskal Herrian 96 laguni egozten diete haurrez abusatutako izana.

Gurean ere mugitu baitira gauzak gaiaren inguruan, eta ezagutarazi dira hainbat kasu. Esaterako, Juan Kruz Mendizabal *Kakux* abadeak aisialdi talde bateko hainbat gazteri egindako abusuak –Donostiako Gotzaindegiak hiru urteko zigor arin bat baino ez zion jarri orduan Gipuzkoako bikario nagusi zenari–; Maristen Erandioko, Bilboko, Iruñeko eta Artziniegako ikastetxeetan gertatutakoak; Lizarrako El Puy ikastetxeetako –Estatuko fiskaltzak preskribitutako kasuak ikertu gabe utzi ditu–; edo EITBko Asier Sánchez kazetariak Felipe Gutiérrez *Bermeoko pederasta*-ri buruz argitaratu emandakoak: Bermeoko Jose Done ikastetxeko zuzendari zenean abusuak egin zizkien gutxienez hiru ikasleri, eta ondoren, Bilboko beste eskola batera lekualdatu zutenean, gauza bera egin jarraitu zuen; “Felipe anaiak” duela gutxi bideo pribatu batean aitortu zien egindakoa bere biktimei.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak foru erkidegoko eliz erakundeetan izandako gehiegikerien inguruko txostena argitaratu zuen iaz, Nafarroako Abusuen Biktimen Elkartearekin elkarlanean. 1948 eta 1985 urteen artean sexu abusuak jasan zituzten 60 testigantza jaso zituzte eta 31 abusatzaile identifikatu. Datu horiek eskuan, Nafarroako Parla-

Nafarroan biktimei elkarrizketak egiten hasiko da abusuak ikertzeko batzordea

Nafarroan Elizako ordezkarien eskutik sexu abusuak jasan dituzten biktimak aitortzeko batzordea martxan da pasa den urriaz geroztik. Azaldu dutenez, otsailean zehar elkarrizketak egiten hasiko da kaltetuekin, lehen aitortza eskariak jaso baititu dagoeneko. Historialariak, kriminologoak, psikologoak, irakasleak eta giza eskubideen gaietan adituak daude batzorde horretan. Izaskun Gartzaron batzordekide eta Nafarroako Gobernuko Delituen Biktimen Laguntzarako Bulegoko arduradunak esan duenez, helburua da behar duten pertsonen “laguntza ematea”.

ABUSUAK BATZUEK, ERANTZUKIZUNA GUZTIOK?

Batzordea sexu abusuak aitortzeko legearen baitan sortu da. Legea Nafarroako Parlamentuan onartu zen 2022ko uztaillean, alderdi guztien babesarekin, Navarra Sumarena izan ezik. Alderdi horrek, ezezkoa emateko, inuitek jasandako abusen biktimekin konparatu zituen Nafarroako Eliza barruan gehiegikeriak jasandako biktimak. Iruñeko gotzaindegiak ere erantzukizunak orokortzen kritikatu du legea, eta esan du ez direla abusen “biktima guztiak” kontuan hartzen.

Hain justu, Nafarroako Justizia kontseilari Eduardo Santosek Nafarroako Eliza- ren ordezkariak batzordean behar luketela adierazi du, baina oraingoz Elizak uko egin dio”.



The Boston Globe egunkariaren azala 2002ko ekainaren 6an. Elizako sexu abusuak ezagutarazteko giltzarri izan zen.

Shame

gehiegikerien erretratuak

Bilboko Gotzaindegiko Eleiz Museoan *Shame* izeneko erakusketa paratu dute, haurrak zirela sexu abusuak jasan zituzten Europa osoko ehun pertsonen testigantzekin, Simone Padovani italiar argazkilariak egindako bakoitzaren erretratuez lagunduta. Erakusketa Justice Initiativek bulztatu du, haurren kontrako abusuak salatzeke europar ekimena, eta ondoren Bartzelonan eta Europako beste hainbat hiritan erakutsiko dute. Erakusketa Bilbon den bitartean –martxoaren 25a arte egongo da ikusgai– gaiaren inguruko hainbat hitzaldi eta topaketa ere egingo dituzte.

Hainbat esparrutan sexu abusuak jasan zituzten haurren kasuak daude Eleiz Museoan, etxean edo kirol taldeetan gertatutakoak, adibidez, eta tartean sartu dituzte Eliza barruko erakundeetan egindako gehiegikeriak ere. Erakusketak, baina, ez ditu erasotzaileen izenak edo argazkiak agertzen, biktime-nak bakarrik. Besteak beste Juan Cuatrecasasen testigantza dakar.

2008tik 2010era José María Martínez Sanz irakaslearen eskutik Bilboko Opus Deiko Gaztelueta ikastetxean jasandakoak kontatzen ditu Cuatrecasasek: “12 urterekin ez nintzen guztiz kontziente gertatzen ari zenaz, baina banekien ez zela normala eta ez zitzaidala gustatzen. Abusua baino gauza mingarriagorik badago: gertatutakoa estaltzea eta biktima berriz biktima bihurtzea”. Gazteluetako kasuan, Martínez bi urteko kartzela zigorrera kondenatu zuen Bizkaiko Probintzia Epaitegiak, baina Opus Deiko ikastetxeak ez du sekula onartu gertatutakoa, ikaslearen testigantzari sinesgarritasuna kendu izan dio beti. Orain, familiari Francisco aita santuak gutun bidez hitz eman dio Elizako justiziak ere kasua ikertuko duela.



mentuak Eliza barruko sexu abusuen biktimak aitortzeko legea onartu zuen 2022ko uztaillean, horiek ere “oroimen kolektibora ekartzeko”, eta horren bidez ikerketa batzordea jarri du martxan.

“EZIN DA HITZETAN JARRI”

“Ume batek nola eraman dezakeen mina, hori umeak bakarrik daki. Bizitza guztia aurretik dauka, iraganik ez dago, eta gai da ia dena gainditzeko, baina esperientzia hori, agure bati zakila hartzearena, ezin da hitzetan jarri”. Hala kontatu die Jose Ramon Blazquezek haurra zela bizitakoa Alberto Barandiaran, Iñigo Astiz eta Miren Rubiori *Ez duzu abusatuko. Pederastia kasuak Euskal Herriko elizan* (Elkar, 2017) libururako.

Bilboko Miserikordi Etxeko zuzendari Jose Luis Perdigoren eskutik Blazquezek eta bere gelako kideek jasandako basakeriak eta sexu abusuak dakartza liburuak, baita beste hamaika tokitan gertatutakoak ere: Ondarroan, Gabirian, Ibarra... Libururako 50 elkarrizketa baino gehiago egin dituzte eta, azaltzen dutenez, jasotako testigantzetan argi geratzen da erasoek eragindako mina biktima bakoitzaren arabera dela, baina luzea dela sexu abusuak uzten duten “marka”.

Ezin omen da errealitate hori hitzetan jarri, eta horregatik jo ohi da fikziora sarritan. Maddi Ane Txoperenak *Ez erran inori* (Elkar, 2022) eleberrian modu gordinen islatzen du txikitan abusuak –kasu honetan etxean– jasan dituen pertsona baten ezkutuko sentimendua: tok, tok, tok... “zurumurr

konstante bat da piztiaren erantzuna”. Izan ere, mina are sakonago suerta liteke, erantzuna halakoa bada.

Barandiaranek, Astizek eta Rubiok liburuan diotenez, abusatzaileak oraindik “sagar ustel” batzuk baino ez dira Elizarentzat, eta “iskin egiten dio hainbeste urtez hainbeste sexu abusu posible egin dituzten botere egiturak aztertzeari”. Egitura horiek aztertu behar dira, egindakoa aitortu eta erreparatzeaz gain, berriz ere gerta ez dadin. Juan Mari Arregi seminarista ohi eta kazetariarentzat prebentzioa da gakoa: “Eliza barruko errepresioa, baita sexuari dagokionez ere, lehen izan zen eta orain ere badago”, azaldu dio astekari honi, eta bere ustez sexualitateari buruzko heziketa “integral” bat falta da oraindik. Badaki zertaz ari den. Arregik publiko egin zituen haurra besterik ez zela Derioko seminarioan sartu zutenean Manuel Estombaren eskutik jasandako sexu abusuak.

KONKORDATUA ETA KONPLIZITATEAK

1936ko Gerra amaituta, Eliza Katolikoaren eta Francoren erregimenaren arteko hariak ezin hobeto uztartu ziren. Are gehiago, 1953an Francok konkordatu sinatu zuen Vatikanorekin eta, nazioarteko aitortzaren truke, diktadoreak erabateko ahalmena eman zion Elizari hezkuntza osoa katolizatzeko, baita ekonomian eragiteko gaitasuna ere, 1960ko hamarkadan Opus Deiko ministro teknokratak gobernuan sartu zirenean. Dirua eta boterea.

Giro autoritario hartakoak dira salatutako pederastia kasu asko, zigor-



Joseph Ratzinger Benedikto XVI.a aita santu emeritoari ohorezko hiletak egin zizkieten urtarrilean, Erroman. Azken urteak pederastia eskandaluek inguratuta bizi izan zituen; besteak beste, Municheko artzapezpiku izan zenean hainbat kasu estali zituela uste da. Irudian, Frantzisko aita santua bere alde oitutz egiten hilkutxaren aurrean.

gabetasunak eta inork kontuak eskatuko ez zizkiela jakitearen lasaitasunak eraginda. Juan Mari Arregik garbi du eliz hierarkia sexu abusu sistematik horien konplize izan zela: “Estali egin zituen eta ez zuen neurri berehalakorik hartu. Abusatzailak seminarioetatik eta erlijio-etxeetatik egotzi beharrean, gehienez ere tokiz aldatu zituen, eta horrela, abusatzen jarraitu ahal izan zuten”, dio.

Hierarkia horretan gorantz eginda, noraino irits zitekeen konplizitatea? Euskal Herrian oraindik ez da halakorik luparekin begiratu, baina beste toki batzuetan urrun iritsi dira. Alemanian, Municheko artxidiesiak aginduta ikerketa egin dute Bigarren Mundu Gerra amaieratik gutxienez 1982 urtera arte Bavierako estatuan izandako sexu abusuen inplikazioaz, eta frogatu ahal izan dute Joseph Ratzinger Benedicto XVI.a aita santuak hango artzapezpiku zenean lau kasuren berri jakin zuela, baina ez zuela “ezer egin”. Okerragoa dena, parroko baten gehiegikeriak estali nahian, lekuz aldatzeko agindu zuen, gerora katoliko guztien pontifize izandakoak. Auzi horregatik epaiketa egingo dute München martxoaren 28an, baina arazo bat dago: Ratzinger jadanik hil dela.

Urdin Euskal Herri irratia filtratu duenez, jadanik hogeita hamar dira Baionako diozesian jarritako salaketak

BOTEREA ORAINDIK

Baina ezin esan Elizaren barruan sexu abusuak estaltzeko, zuritzeko, gutxieste-ko edo orokortzeko jokabidea iraganeko kontua denik. Gaur egun ere oso presente dago. Zergatik esan du Iruñeko gotzainak, Elizako sexu abusuen biktimak aitortzeko Nafarroako legeak “beste biktimak” diskriminatzen dituela? Zergatik parte hartu zuen *Kakux*-ek Donostiako gotzain berriaren aurkezpen ekitaldian inor lotsagorritu gabe? Zergatik zioen Ratzingerrek pedofilia “denon” arazoa dela?

Dirua eta boterea. Boterea eta inpunitatea. Binomio asko dago hemen jokoan.

Esaterako, erreportaje hau egiterakoan Elizaren beso mediatikoak noraino irits daitezkeen frogatu ahal izan dugu Googleko bilaketa azkarretan; noraino eragin dezaketen pederastiaren inguruko iritzi publikoan. Inpunitatea eta hedabideak.

Gaur egungo finantzetan eta munduko ekonomian sotanadun gizonen duten pisuak ere jar gaitzake lorratzean. Vatikanoko Estatuak ez du Barne Produktu Gordinik, enpresa baten antzera funtzionatzen du eta higiezin munduko jabe handiena da –soilik Italian, terrenoen %20 bereak dira–. Vatikanoko Bankuak, bestalde, 7.000 milioi euroko funtsak ditu gordeta. Iaz, baina, etekinak erdira jaitsi zitzaizkion, eta horietatik zati handi bat sexu abusuen kalte ordainetarako bideratu behar izan zituen. Hain justu, Francisco aita santuak agindu du Elizako erakundeek irabazten duten diru guztia euren bankura transferitzeko. Gianluigi Nuzzi italiar kazetari eta *Vaticano SA* (Chiarelettere, 2009) liburuaren egileak dio kiebra santua 2023 urtean etor litekeela...

Hori guztia ikusita, agian hobeto uler liteke zergatik Eliza Katolikoak ez duen egiturazko benetako aldaketarik nahi sexu abusuen aurrean: ez du boterea galdu nahi. ●

“ ”

‘Soilik baietz da baietz’ legea kritikatzen dutenek edo ez dute irakurri, edo ez dute ulertu

Carla Vall abokatua

Genero indarkerian eta zuzenbide penalean aditua eta kriminologoa da Carla Vall abokatua (Vilanova i la Geltrú, Katalunia, 1989).

Trencar en cas d'emergència. Manual per a víctimes i supervivents de violències masclistes (Larrialdi kasuan, hautsi. Indarkeria matxisten biktimentzako eta bizirik atera direnentzako eskuliburua) liburua idatzi zuen iaz, zenbait erakunde publikoko aholkularia da eta Aina Troncoso Reverter psikologoarekin batera, Zinema Katalanaren Akademiaren Erasoen Kontrako Sailaren koordinatzailea da.

 SAIOA BALEZTENA  JORDI BORRÀS

Egin dezagun zarata mediatikotik ihesi. Nolakoa izan zen zure hautzaroa?

Konpromiso politikoa zuen familia batean jaio nintzenez, giza eskubideen aldarrikapenak zeharkatu nau ttikitatik. Amaldeko amaxiarekin hazi nintzen eta bera errepublikar ezkertiar irmoa zen: harekin bizi izan nuen lehendabiziko nozio feminista. Oroitzen naiz, 5 urte nitueanean erraten zidala nik lan egin behar nuela borrokatu ezin zutenen eskubideak bermatzeko, eta nolabait, orduan garatu nuen justiziarekiko konpromisoa.

Gero Zuzenbidea ikasi zenuen, baina, oker ez banago, ikasketak uzteko puntu egon zinen. Zer gertatu zen?

Gaztetxoa nintzenean ezker independentistan militatu nuen lehendabizi, borroka feministan, eta Zuzenbidea ikasten hasi nintzenean, bigarren ikasturtean, ikasketak uztea pentsatu nuen. Zuzenbidearen adar batzuk ez zitzaizkidan batera interesatzen. Gizarte Hezkuntza ikastea pentsatu nuen, baina zorionez ez nuen egin... [Irriak].

Zergatik erabaki zenuen jarraitzea?

Helburua argi nuelako. Nik abokatua izan nahi nuen, bai edo bai, eta nolabait ulertu nuen gustuko ez nuen hori –gehienbat zuzenbide administratiboari lotutako ikasgaiak– seguruenik ez nuela beharko. Izan ere, zuzenbidearen ahalmenetako bat da, ulertu behar den siste-

ma bat den arren, ez duzula zertan adar guztietan jardun.

Indarkeria matxisten kontra espezializatu zinen gero. Nolatan?

Zuzenbidea ikasten ari nintzela indarkeria sufritu nuen neure azalean. Oroitzen naiz ikastaro bat egin nuela *Indarkeria matxistak, diziplina anitzeko ikuspegia* izenekoa. Han ginela, nire lagunetako batek buelta eman zuen eta erran zidan, “hau da zuri gertatu zaizuna”. Nik ere argi ikusi nuen. Irakasgai hura eman zuen irakaslea aurrerago nire psikologoa izan zen, eta hasieratik eskatu nion, mesedez, sendaketa *premium* bat behar nuela, nik horretan lan egin nahi nuelako. Argi eta garbi ikusi nuen.



Zergatik ikusi zenuen hain argi?

Neure azalean bizi nuenean, ez nekien nora jo. Tikiak garenetik erraten digute emakume ona izateko nola jokatu behar dugun eta, aldiz, inork ez gaitu prestatzen halako zerbait pasatzen zaigunarako. Are gehiago, pasatu zitzaidanaz ezin nuen solastu, herrian solastuz gero, estigma gainean izanen nuelako betirako. Baina nik argi nuen nire esperientzia azaleratu gabe ez nuela osatzeko

“ ”

*Isilik geratzea
aukera zaharkituegia
da, gure aurreko
belaunaldiek hartu
duten estrategia*

aukerarik izanen. Isilik geratzea aukera zaharkituegia da, gure aurreko belaunaldiek hartu duten estrategia, eta guk ikusi dugu isiltasunaren estrategia alferrikakoa izan dela.

Gauzak aldatzen ari dira. Zenbateraino da garrantzitsua indarkeria bistaraztea?

Nik neure zauria azaldu nuen, isilduz gero iruzurgile sentitzen nintzelako. Bateriaezina iruditzen zitzaidan indarkeriak pairatzen zituzten emakumeekin lana egitea, neronek bizi izan nuela aitortu gabe. Eta, garai hartan, 2009an, bizipen anitz azaleratzen hasi ziren arren, indarkeria matxistatik bizirik atera ziren emakumeen esperientziak guti ziren. Ezin hobeki azaltzen du Nerea Barjolak: sufritzen dugun indarkeria lehengoratu dezakegu eta edonor atera daiteke bertatik, estigmatik eragin gabe. Emakumeok indarkeria bizi eta bizirik atera bagara, mezu hori lau haizetara zabaltzea garrantzitsua da. Komunikabideek zauriaz egiten duten alegoriak kezkatzen nau. Nire ustez deseraiki behar den zeozer da.

Zer erran nahi duzu?

Indarkeria orok mina dakar, baina mina momenturik ahulenean erakusteak ez dakit zenbateraino laguntzen duen. Badakit orbana erakustea ez dela hain erakargarria, baina agian hori da erakutsi beharko genukeena...

Komunikabideek erronka bat dute sexu indarkeriari dagokionez?

Zalantzarik gabe, batez ere ez dugulako ikusi kazetaritzan *Me too*-rik. Auzien kontakizun hain sentsazionalista egiten da, sarri, ogibidearen baitan gertatzen denaz solastea ekiditeko. Tranpa perfektua da. Eta larriena da hainbat hedabideek delituak egin izan dituztela: biktimaren datuak edo irudiak filtratuta argitaratu, esaterako. Hori orain Zigor Kodean argi eta garbi babestuta dago, Sexu Askatasuna Erabat Bermatzeko Espainiako Lege Organikoari esker.

Pairatutako indarkeria bistaraztearen garrantzia agerian utzi du Isabel Coixet zuzendariaren *El sostre groc* (Sabai horia) dokumentalak, Lleidako Aula del Teatre-ko sexu erasoen auziari buruzkoak. Zeuk ere parte hartu duzu, dokumentalean eta defentsan. Ikaragarri polita izaten ari da. Duela aste

gutti, Lleidako Udalaren salaketa idazten ari nintzenean, konturatu nintzen hori poesia juridikoa zela. Seguruenik, egin dudak gauzarik politenetako bat da. Anitz ikasi dut eta ikaragarria da ikustea nola Aula del Teatretik igaro ziren hainbat belaunalditako biktimen isiltasuna bukatu den. Ez hori bakarrik, orain dokumentala sarean ikusgai dagoenez, indarkeria matxistari bizi-raun zioten emakume anitz azalera-tzen ari dira.

Filma egiteak testigantza gehiago agertzea eragin du. Zer gertatuko da orain, auzia irekiko da?

Badirudi baietz, *Ara* egunkarian Albert Llimós eta Núria Juanico kazetariak argitara eman zuten lanari esker, urte anitzetako isiltasuna estalgabetzea lortu dute. Eta Isabel Coixetek egin duen dokumentalaren bitartez, filmean parte hartu duten biktima gehiagori deitu diete mossoek, deklaratzera joateko. Fiskaltzak gertatukoaren berri du eta espero dugu espediente honekin salaketa jarri eta prozesu judiziala abiatzea.

Egunotan sexu indarkeriaren inguruko eztabaida pil-pilean dago. Twitterren aipatu zenuen eztabaida kasu konkretuetatik haratago doala eta akusazioek sarri topo egiten duzuela arazo batekin: ez duzuela bakarrik gertatutakoa frogatu behar, baizik eta aspaldiko begirada matxista ezabatzeke erronka ere baduzuela.

Arazoa da aspaldiko abokatuen belau-naldiak uste duela euren presentzia-rekin soilik, eta orain arte erabili diren argudioak erabiliz, gazteagoak garen abokatuon belaualdiok bere garaian bezala jokatu dugula. Baina aldaketa gertatu da eta kode erabat desberdina erabiltzen ditugu. Talka horretan ezin dugu elkarrizketarik izan eta guk bistako abantaila dugu. Euren mundua bukatzen ari da...

Horren adibidea da abenduaren 30ean Bartzelonako Sutton diskotekan Dani Alvesek ustez bortxatu zuen neskaren salaketa. Bere defentsa biktimaren salaketa zalantzan jartzean oinarritu da,

irudietan ez omen delako ageri gaizki zegoenik. Zer deritzozu?

Cristoval Martell abokatuak [Dani Alvesen defentsa] bertze belaualdi batekoa den eta agortzen ari den estrategia hartu du: biktimaren jarrera zalantzan jartzen saiatzen ari dira, *saiheste portaera* irakurtzen dute deus gertatzen ari ez balitz bezala. Baina badakigu beldurra duelako jokatzeko duela horrela biktimak. Eta horrek ez du erran nahi gertatzen ari dena onartzen duenik, testuinguru horretan nork onartuko luke indarkeria? Diskoteka bateko komun batean, ezagutzen ez duzun tipo batekin... Era berean, irakurketa hori onepenenaren begirada maskulinitik egiten da beti, eurak –gizonezkoak– liluragarriak izango balira bezala, eta guk –emakumeak– euren desiraren aurrean amore ematea bertzerik ez bage-nu bezala...

Ezin dugu bukatu 'Soilik baietz da baietz' legegari buruz solastu gabe. Zer deritzozu?

Azpimarratu nahi dut ni ez naizela Po-demos-etik gertu sentitzen, ez ditut se-





kula bozkatu eta eurekin dudana sinpatia apurra murrizten da esatera lege hori guztiontzat onuragarria dela. Bitxia da, zeren atal penala legearen zati ttiki bat bertzerik ez baita eta, aldiz, horretan oinarritzen ari da eztabaida guztia. Paradigma aldaketa bat dakar: batetik, lege organikoa eta integrala den heinean begirada zabaltzen duelako; eta bestetik, afera penaletik haratago doala kontuan hartuta, biktimei zuzendutako hainbat zerbitzu martxan jartzen dituelako.

Publikoki ez duzu iritzirik eman. Ulertzen duzu legeak eragin duen iskanbila?

Ez dut iritzirik eman, ez dudalako zarata gehiago gehitu nahi, baina larria iruditzen zait hainbat politikarik duten jarraia lau botoren truke. Argi dago hainbat talde parlamentariok ez dutela legea irakurri. Nik ez dut inoiz lotsarik izan errateko ezker independentistaren [CUP] parte izan naizela, baina egun hauetan lotsa ikaragarria sentitu dut euren posizionamenduari. Lege hau ezin da kritikatu punitibista izateagatik, eta hala egiten dutenek gaitasun hauetakoren bat falta dute: edo ez dute legea irakurri, edo ez dute ulertu. Ez dago bertzerik.

Zergatik?

Erraten dutenak ez duelako zentzurik eta faltsukeria bakarrik defendatzen dituztelako, politikoki desberdintzeko helburuz. Eta zarata hori elikatzen duten bitartean, bulego honetan biktimen hamarnaka dei jasotzen ditugu, eurekin zer gertatzen den galdetzeko. Min ikaragarria eragiten ari dira.

“ ”
**Emakumeok sufritzen
 dugun indarkeria
 lehengoratu dezakegu
 eta edonor atera
 daiteke bertatik,
 estigmatik eragin gabe**

Legearen aldaketak auzi guti batzuetan eragin duen zigorrak murrizketarekin hasi zen dena.

Gauza bat da teknika legegileari buruz juristok izan dezakegun eztabaida, baina, zintzoki, ez dut uste hainbat alderdi politikok nahikoa ezagutza dutenik honen inguruan iritzia emateko. Nik anitzetan zalantzak ditut, ez baikara bakarrik sexu indarkeriaz ari, baizik Zigor Zuzenbidearen organo osoaz. Larria da eta uste dut arriskua dagoela jendea politikatik urruntzeko. Niri behintzat gertatu zait: argi dut zein den nire lubakia, juridikoa, eta honek politikatik urrundu nau, erabat.

Pilar Llop Justizia ministroak erran zuen indarkeria frogatzea erraza dela.

Tamalgarría da, batez ere kontutan hartuta bera magistratua dela eta aski ongi dakiela indarkeria edo intimidazioa frogatzea oso zaila dela. Argi dago mina-

ren merkantilizazio ikaragarria egiten ari direla. Eta, hein batean, hori gertatzen ari da Berdintasun Ministerioko emakumeak hondoratu nahi dituztelako. Horregatik, bereziki kezkatzen nau ikusteak hainbat alderdi ezkertiar ere erantzun erreakzionario horretan parte hartzen ari direla, eta merkantilizazio hori elikatzen.

Alderdi ezkertiarrek eta feminismoa. Nola bizi duzu legeak areagotu duen feminismoaren guda hori?

Miseria intelektualetik, egia erran. Lege hau ez bazaie antipunitibista iruditzen da emakumei eskatzen dietelako salaketarik ez jartzea. Nik jakin nahiko nuke zergatik ez duten antipunitibismoaren alde egiten bertze eremu batzuetan, adibidez, polizia batek manifestazio batean arauz kanpo jotzen duenean, edo nagusiak lanetik botatzen dituztenean legez kontra. Orduan ere ez dut salatu behar? Kritika honek sasi-aurrerakoi kiratsa du. Berriz diot, okerrera da eztabaida bukaezin horretan dauden bitartean, sexu indarkeria sufritzen dutenek ez dietela haiei deituko, baizik eta guri: ospitalean emakume bat larri dagoelako, bera erailtzen saiatu ondotik. Kritikatzeko ari direnak errealitate horretatik nahiko urrun daude, eta ankerra da euren jokabidea.

Zigorren murrizketak kezkatzen zaitu?

Sinbolikoki materialki baino gehiago kezkatzen nau. Niri kezkatzen nau biktimen %92k ez duela salatzeko, kopuru handi horrek agerian uzten baitu erasotzaileen gehiengo handia ez dela sekula justizia sistematik pasako. Hori bai iruditzen zait kezkarria. Eta bada deigarria den bertze kontu bat: lege honekin kezkatuen daude tradizionalak emakumeen eskubideak zaindu ez dituzten pertsona anitz. Zigorren murrizketen kontrako diskurtsoa lau haizetara zabaltu dute argi eta garbi matxistak diren hainbat abokatuk. Noski, zigorren murrizketek ikaragarriak izaten jarraitzen dute, ez lege honen harira, baizik berez; errekurtsioen bitartez sarri zortzi urteko zigor bat bi urtera murrizten da. Orain eskuartean ditut Espainiako Auzitegi Goreneko hainbat auzi. Eta nire ustez arazoa agian hori da, indarkeria betikotzen duten pertsonen zigorrak gaizki neurtzen ditugula. Oraindik ere batek baino gehiagok uste baitu, sistema judizialean eta gizartean, sexu indarkeria kontaktu fisiko hutsa dela, leiorik uzten ez duena. ●

Desikasi daitekeen minaren ondoeza

“Askotan min handia sentitzen nuen oinetan, baina arraroa zen, ez nuelako lotzen kolpe batekin edo lesio batekin, eta ez nuelako identifikatzen nondik zetorren”. Iraia Etxebesteren hitzak dira; duela sei urte azalpenik gabeko mina sentitzen hasi zen oin azpian, eta min horren zergatia bilatzen aritu da denbora luzez. Arturo Goikoetxea neurologoaren arabera, akats neuronal baten ondorioa da.

 **OLAIA L. GARIALDE**

Arturo Goikoetxea neurologoak azaldu digunez, nahiz eta probetan kalterik ez atzeman, biztanleen %20ri eragiten dio min kronikoak. Bere hitzetan, batzuetan burmuina okertu egiten da, eta sistema immunologikoaren antzera mehatxu bat hautematen duenean gorputzari eraso egin diezaioke: “Sare neuronalean akats bat dagoenean, eta burmuinak mehatxu bat sentitzen duenean, norbanakoari ez mugitzeko mezua bidaltzen dio, eta mugitzen denean mina agertzen da”.

Goikoetxeak berak, lesiorik izan gabe urtero bizkarreko mina izaten zuen: “Oso ezgaitzailea zen eta astebetetz ohetik ezin atera egoten nintzen”. Neurologoaren ustez, minaren jatorria ulertzea eta minaren inguruan ikasitakoa desikastea da gakoa: “Hezur bat apurtzen dugunean hezurak ez du minik sentitzen, mina burmuinean sentitzen da. Hau da, burmuinak informazioa jasotzen du, eta izandako esperientzien arabera eta testuinguruaren arabera min sentazioa handiagoa edo txikiagoa da”.

Gaineratu du adituek minaren inguruan emandako informazioak mina sentitzeko modua baldintzatzen duela: “Jendeak minaren inguruan dakiena adituek emandako informazioa da, eta hor profesionalok kale egin dugu, infor-

mazioa okerra delako”. Horregatik, min kronikoa aztertzeke eta minaren inguruko dibulgazioa egiteko GoiGroup taldea sortu zuen Gasteizen: “Gure asmoa da minaren inguruan sortutako sinesmenak deseraikitzea eta profesionalok erabiltzaileei kendu diegun askatasuna itzultzea”.

Minaren inguruko formakuntza eta dibulgazioa egitea dute xede, eta min kronikoarekin bizi diren pertsonak ardatzea. Baina taldea ez da ezerezetik sortu, bizkarreko mina zeukanean hasi zen proiektua sortzen: “Ohetik ezin atera nengoen egun horietako batean irakurri nuen egin nezakeen gauzarik okerrenea zela egun osoa ohean egotea. Hortaz, gutxika, eta burmuinari tranpa eginez, mugitzen hasi nintzen”. Pixkana, gero eta gehiago mugituz eta mina aztertuz, hobetzea lortu zuen.

Mugitzeak on egiten ziola ikusita, pazienteei ere mina kentzeko on egiten zizkioten gauzak azaldu zizkien: “Ikusi nuen mina beste ikuspegi batetik lantzea oso onuragarria dela, min hori baretzen zaielako pazienteei”. Erretiroa hartu zuenean mina lantzeko talde “txiki” bat sortu zuen Gasteizen, eta handitzen joan zenean GoiGroup izena jarri zion.

Bertara jo zuen Iraia Etxebestek, irrastian entzundako elkarriketa batetan “oso identifikatuta” sentitu zelako. Ha-

sieran, soilik oinetako mina sentitzen zuen, baina denborarekin kirola egiten zuen bakoitzean ondoeza nabaritzen zuen besoan, oinetan edota hankan: “Oso arraroa zen, kirola egin eta bi egunera ateratzen zelako; orduan, hasi nintzen pentsatzen lotura egon zitekeela min guztien artean”.

AUKERAK AGORTZEN DIRENEAN

Denetarik probatu zuen, hala nola medikua, fisioa, psikologoa, osteopata eta naturopata: “Ez zekiten zer zen, uste zuten faszitisa izan zitekeela, baina probetan ez zen deus atzematen”. Eguz batzuk “hobeak” izan arren, “korapilatuta” eta “etsituta” zegoen. Goikoetxeak azaldu du ohikoa dela azalpenik topatzen ez dutenean denetarik probatzea: “Aukerak agortzen direnean sozialki ezezaguna dena onartzen dute, eta on egiten direnean ez dakite gertukoei nola azaldu”.

Fisio batek artatu zuen GoiGroupen eta Etxebeste “harrituta” geratu zen, ez ziolako probarik egin eta ez zuelako ukitu: “Minaren inguruan galdetu zidan, eta kontatu zidan zer den mina, nondik datorren, zein den abiapuntua”. Urte eta erdi egon da mina lantzen.

Kirola egin ostean bere gorputzak zein erreakzio zuen ikusita, gauza batzuk egiteari utzi zion Etxebestek, ondorengo “zigorraren” beldu zelako: “Mina



Iraia Etxebeste (ezkerreko irudian) Arturo Goikoetxea (eskuinean) sortutako GoiGroupera joan zen: "Minaren inguruan galdetu zidaten, eta kontatu zidaten zer den mina, nondik datorren, zein den abiapuntua".

ez zen jasanezina, baina zutik egotea oso mingarria zen. 35 urte eta bi haur nituen, eta pentsatzen nuen: 'Horrela izango da beti? Gero eta okerragoa izanen da? Nolakoa izango da nire bizitza?'. Ezjakintasunak "estutzen" zuen gehienbat: "Askok lagundu ninduen ulertzeak ez zela nire arazoa, zerbait biologikoa baizik".

MINAREN JATORRIA ULERTUZ

Minaren ondorioz, hiru urte zeramatzan korrikarik egin gabe, eta gaiaren inguruan hitz egin ostean, Gasteizen korrika egitera ateratzea erabaki zuen: "Blokeoaz hitz egin, eta hamar minutu korrika egitera atera ginen. Hurrengo egunean mina izan arren, berriz atera ginen, eta neure buruari gogorazi nion ez daukadala lesiorik". Poliki-poliki, minaren jatorria ulertuz joan da, eta mina gutxitu da: "Tarteka burmuina oroitzen denez, berriz sentitzen dut, baina lasaigo hartzen dut, badakidalako egun batekoa dela".

Etxebesteren arabera, bi pausok lagundu diote bereziki hobetzen: lehenik eta behin, ulertzea mina akats neuronal baten ondorio dela, eta bestetik, bere buruaz eraiki duen irudia deseraikitzea:

"Medikuak oraindik oso zentratuta daude farmakologian, eta pilulekin mina kentzen ez denean, uste dute jatorria maila emozionalean dagoela"

Arturo Goikoetxea

"Pentsatzen baduzu ahula zarela eta zerbait egiten baduzu mina izanen duzula, ez zara hortik aterako".

Gutxi dira Euskal Herrian Goikoetxearen ikuspegitik mina jorratzen duten neurologoak; Araban ikertzen hasi zirenean astero elkartzen ziren Gasteizko zenbait neurologo: "Askok esaten zuten

zentzua zeukala egiten nuenak, baina zaila zela praktikara eramatea". Goikoetxea kontent da Nafarroan eta Bizkaian ere ikertzen ari direlako: "Zorionez, fisioterapeutak ere horretan arreta handia jartzen ari dira".

Goikoetxea dio medikuek askotan ez dituztela pertsonak "osotasunean" aztertzen: "Uste dugu soilik molekulek azaltzen dutela mina, baina gizakiongan, molekulez gain informazioa ere badago". Adituarentzat, ez du "inongo" zentzurik soilik molekulei erreparatzeak: "Sare sistema konplexuetan pentsatu beharko genuke, baina hori medikuntzatik kanpo aztertzen ari da".

Horregatik, minaren inguruko teknika berriak medikuek landu beharreko gaitegian sartu beharko lirakeela uste du: "Oraindik oso zentratuta daude farmakologian, eta pilulekin mina kentzen ez denean, uste dute jatorria maila emozionalean dagoela". Barrura begira aztertu ordez, kanpora begira aztertzen da afera, dio: "Aspaldi esaten zen zenbait sintomaren atzean jainkoak zeudela, gero arteriei bota zitzaien errua; medikuntzak beti bilatu ditu errudunak kanpoan, barnean begiratu beharrean". ●

'TXORI URDINAK'

DOS POR DOS

Espetxeak eta zigorrak ere badute bere musika

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Zer eta zertarako da espetxea? Zer zigor kodea? Zeri esaten diogu birgizarteratze? Kartzelak present dituen herri honetan, nago gutxi hitz egiten dela beronen eraginaz eta zigorraren kulturaz. Milaka herritarren errealitatea dena, hormez kanpoko errealitateetik hain urrun. Preso sozial batek eramango gintuenik ere hausnarketa horietara ez zen askoren buruetan egongo. Baina kondena politikoa da, politikoarentzat zein sozialarentzat, eta bere 54 urteen erdiak baino gehiago sistema penalaren zurrumbiloan egin dituen Santi Cobos presoaren historia da horren erakusle.

Txori urdinak liburuan jaso ditu Santi Cobosen bizipenak Zigor Olabarría Oleagak, hau ez da albiste berria –2021ean argitaratu zuen ARGIAK liburua–, baina orain liburuaren aurkezpen musikatuarekin dabilta Ziklone taldearekin, eta Laudion egin berri dute. Hitzez, irudiz eta musikaz osatutako saioa, Cobosen bizipenetatik abiatuta espetxeaz eta zigorraren kulturaz hausnartzeko.

Santi kalean zela jarri zuten liburuaren proiektua martxan, baina berriz espetxeratuta, azken elkarrizketak Zaballako presondegian egin zituzten. Orduetik egileak bisitatu ditu Euskal Herri-

ko hamaika txoko liburua aurkeztu eta jendearekin espetxeaz, zigorreraz, erresistentziaz eta biziraupenaz hitz egiteko. Laudiokoa desberdina izan da, ordea. Liburuaren lehen aurkezpenerako, irudi eta musika uztartzeko ikus-entzunezko saioa prestatu zuten, baina azken orduko arazoak tarteko, ezin izan zuten nahi bezala osatu. Izarran bai, egin zuten osorik ikus-entzunezko formatuan, eta izan zuen arrakasta ikusita, estilo bereko aurkezpen gehiago egitea pentsatu dute. Ziklone musika taldeak hartu du soinu bandaren ardura eta ez da kasualitatea, denak baitira, zuzenean edo zeharka, Santiren gertuko.

ETA HURRENGOA?

Martxorako dute lotuta hurrengo saioa, Murgiako Gaztetxean. Ordubete ingurukoa da, bi zatitan banatua. Aurrenekoan egileak kontatzen ditu Santiren zenbait bizipen, presoaren joan-etorriak, eta haren ahots-mezuren batzuk ere ematen dira. Gero irekitzen da tartea hausnarketarako. Bigarren erdian espetxe sistema, zigorraren kultura, gure jarrera punitiboak eta balizko alternatibak dira ardatz. Horri guztiari pausa eta intentsitatea jartzen dizkio tarteka Ziklonek liburuaren hiru pasarte musikatuak. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“Prensa euskaraz, proiektu kritiko, independentea. ARGIA beharrezkoa dugu”

Hondarribitik Ihintzak

“Hainbat eta hainbat arrazoi etortzen zaizkit burura... baina nolabait esateko, oso beharrezkoa ikusten dut euskaraz, euskal kultura zabaltzeko eta hedatzeko. Horretan ibiltzen zaretenekin zorretan sentitzen naiz. Denok lagundu behar dugu”

Donostiatik Martin Eduardok

“Euskalduna naiz baina atzerrian bizi naiz duela 15 urte. ARGIA Euskal Herriarekin kontaktuan mantentzeko modua da niretzat”

Liverpooldik Nairak

“Benetako eta kalitatezko kazetaritza independentea egiten duzuelako, eta gainera euskaraz! Zinez eskertzekoa, biba zuek!”

Ahetzetik Ramuntxok

“Euskarazko hedabideak izatea ezinbestekoa da eta kazetaritza independentea ere bai”

Getxotik Ikerrek

“Herriaren egoera kezkarriaren aurrean, nire alea emateko gure nazioa aurea eraman nahi duten proiektuei”

Iruñetik Saioak

Interesez puztutako globoak



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Lisboa, 1709ko abuztua. Bartolome de Gusmão apaizak erakustaldi berritzailea egin zuen Indietako Etxean, Joan V.a Portugalgoaren eta bere gortearen aurrean: aire berozko globo baten aireratzea. Asmakizuna berria zen, baina horren atzean dagoen printzipioa Antzinarotik zen ezaguna; airea fluido gisa ulertuta, Arkimedesen fluidoaren printzipioak igoarazten ditu globoak.

Gusmãoaren globoak ez zegoen tripulatua eta, horregatik, Montgolfier anaiak haratago joan ziren; globoak pertsonak hegan garraiatzeko gailua izatea nahi zuten. Eta haiek jotzen dira globo aerostatikoaren asmatzaileak. Lehenengo erakustaldia 1783ko ekainaren 4an egin zuten, eta uda amaieran, irailean, lehenengo aldiz tripulatutako globo hegaldi bat egin zuten Versaillesen, frantziarrak izaki, haiei zegokien errege-familiaren aurrean –edo gainean–: Luis XVI.a, Maria Antonieta, haien gortea eta Parisko milaka herritar. Ikuslego ospetsua eta eskifaia bitxia izan zituen hegaldi hark: ardi bat, oilar bat eta ahate bat.

Handik urtebetera, Jean-François Pilâtre de Rozier fisikari eta kimikari frantziarrak izan zuen lehen aire bidaiaria izateko ohorea. Eta handik bi urtera, Rozierrek berak izan zuen aire istripu bateko lehen biktima izateko zoritxarra.

Montgolfiertarrek amestutako globo garraiatzaileek, hala ere, ez dute bide luzea egin. Azalera eta arrisku handiko globoak behar ziren zama txikiak eramateko. Globo gidatuek edo zeppelinek ere praktikotasun mugatua izan zuten – eta arrisku mugagabea, 1937an Hinbenburgen hondamendiak erakutsi bezala. Eta, hala, hegazkinen garapena medio, soilik erakustaldietarako, publizitaterako edo paseo erromantikoak eskaintzeko erabiltzen dira globo tripulatuak.

Baina, globoen atzean Arkimedesen printzipioa dagoen bezala, badirudi aski guztien atzean izenik gabeko beste printzipio bat dagoela: asmatzen den edozein gauzari erabilera militarra



Montgolfier anaiek 1783an asmatutako “makina aerostatikoa”.

ematea –zuzenean helburu militarrek betetzeko asmatzen ez direnean, behintzat–. Eta, XVIII. mendea amaitu baino lehen ere, aski guztien berriak gudu-zelaietan zer zeregin bete zezakeen pentsatzen hasiak ziren. Nagusiki, gudu-zelaiaren aurretiko ikuspegia lortzeko erabiliko zituzten kometa-globoak, hau da, lurrari sokaz lotutako globo tripulatuak. Aireratze eta lurrarteko uanean jomuga erraza baziren ere, gora irtistan guduaren egoeraren argazki bikaina eta estrategiak erabakitze laguntza praktikoa eskaintzen zuten. Lehen Mundu Gerra bitartean erabili ziren modu horretan, hegazkinak iritsi zirenean zentzu guztia eta geratzen zitzaizen segurtasun apurra galdu baitzuten.

Handik aurrera, eta teknologia berriei esker, Gusmãoaren eskifaia gabeko jatorrizko globo hari atera diote zukua. Globo meteorologikoak dira

horren adibide agerikoena. Altuera estratosferikoetara iritsi daitezke eta, neurgailuez hornituta, orotariko datuak biltzeko ahalmena dute. Jakina, datu meteorologikoez gain, beste edozeri buruzko informazioa jaso dezakete. Gainera, altuera oso handitan edo txikietan mugitu daitezkeenez, puntu berean luzaroan egon daitezkeenez, sateliteek bezala orbita edo ibilbide jakina ez dutenez, osagai metaliko gutxi izan ohi dutenez eta berorik igortzen ez dutenez, praktikan detekta ezinak dira ia. Alegia, meteorologo bikainak izateaz gain, espioi ezin hobeak ere badira.

Eta txinatar globo espioiaren aferari esker, azken asteetan globoen beste erabilera bat ezagutu dugu: munduko potentzien arteko tentsioa komerzi bezala puzteko eta interesaren fokua nahieran bideratzeko ere balio dute. ●

ZUHAITZAK ETA ARBOLAK JARTZEKO ARRAZOIAK, BAITA MAHASTIAN ERE



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zuhaitzak landatzeko sasoi batean gaude. Zuhaitzak, arbolak eta zuhaixkak, baldin eta neguan hostoa galtzen duten horietakoak badira. Hostoari buruan eusten diotenak landatzeko sasoi hurrengo bi ilargiekin etorriko da, martxoan eta apirilean.

Zuhaitzak eta arbolak landatuko ditugu zeruak eta lurrak uztartzeko. Mendia bizitasunez janzteko. Basoak sortzeko. Lorategiak edo lore baratzeak osatzeko. Etxeko atarian gorputzari edo lohiari eta arimari babes egiteko. Sagardoak, pattarrak, ardoak, uxualak, erreximentak, konfiturak, marmeladak, konpotak, igali ale eta fruitu lehorrak-freskoak eta altxatzekoak emateko. Lur-jausiari eutsi eta sortutako zauriak oneratzeko. Errioaren gorabeherak jotzen duten bazterreko lurra atxikitzeke. Haizete beltz eta gorrietatik babes sortzeko asmoarekin haize-gerizak eta haize-maldak eraikitzeke. Atzean dituztenak ez-kutatuta komeni ez direnen begiei bazka kentzeko eta begia betetzera beste nora-bait uxatzeko. Toki jakin batean, iturri bati edo eseraulki bati itzal berezia sortzeko. Mendietako bordak tximistetatik babesteko. Lur sail baten mugariaren kokagunea urrutitik tokitzeko moduan ikusgarritzeko. Gorpu baten errautsak non lurperatu edo haizatu eta hildakoarekin loturaren bat bagenuela gogora ekarri beharko ligukeen tokia oharrazteko.

Bada galdu xamarra den beste era eta ohitura bat: zuhaitzak eta arbolak mahastiaren (*Vitis vinifera*) zerbitzari. Banaka bezala eskaiak osatuz, zuhai-



tzek duela oso urte gutxi arte zeregin ugari zituzten, mahastiaren mesederako denak. Iraunkortasunaren ikuspegitik, ezin egokiagoa da bien uztarketa. Era eta ohitura horiek berreskuratzetik de-non mesedea letorke. Nagusiki mahastiarena. Klima larrialdaketa honetan, udamin berominei eta lehorte zakarrei aurre egin eta mahastia babesteko mikroklimak eratuko lirateke. Lurzorua-ren bizitza sustatuko litzateke, uraren bat-bateko gorabeherak heinkatuz eta materia organikoaren maila egonkortuz eta hobetuz. Era berean, bioaniztasunak nabarmen oneratzeko bideari ekingo lioke: ekosistema aberastu, gaitzak eta

izurriteak doitu, ongarriak eta fitosanitarioak murriztu, kutsadura apaldu, polinizazioa indartu...

Zuhaitzak eta arbolak mahastietara bueltatzeko ikuspegi sistemiko, ekosistemiko, ederragoa dakar: karbonoa lurrrera eta zuhaitzetara lotzea, kutsadura jaistea, bioaniztasuna suspertzea, zura egurra eta bestelako fruituak eskurtzea, energia baliabideak ez xahutzea, lurra lantzea urritzea...

Eta, lana urritzea ederra bada, zer esanik ez mahasti horrek emango duen ardoa, ederretan ederrena. Topa zuhaitzen alde! Eta arbolen alde! Ekin landaketari. ●

AGROEKOLOGIA ESKOLA

“ZAINTEI, NORBERE BIZIARI, AISIARI... HORRI ERE BEGIRATU BEHARRA DIO AGROEKOLOGIAK”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Baladre kolektiboko eta Arabako Tierra Papel Tijera proiektuko kideen elkarlanetik, Agroekologia Eskola sortu da lehen aldiz. Ekoizpenari eta alde teknikoari soilik begiratu beharrean, proiektu agroekologikoak ikuspegi holistiko batetik planteatzen dituzte eskolaren bultzatzaileek; alegia, ekonomikoki ez ezik, pertsonalki eta emozionalki ere proiektuok bideragarriak izatea. “Guretzat bizitzako alde guztiak kontuan izatea da agroekologia. Ez du balio ekoizpenari begira hamarreko proiektu bat sortzeak, energia guztia horretan jarrita, gero beste alor batzuk hantza gora edukitzeko”, azaldu du Ramon Roa Bañales kideak. Proiektu bat abiatu nahi dutenei nahiz honezkero abiatu berri dutenei akonpainamendua egiteko helburuarekin abiatu dute eskola.

LURRA, PAPER, KOLEKTIBOA ETA GORABEHERA

Lau oinarriren bueltan antolatu dute eskolako edukia bultzatzaileek. Lehen oinarria “lurra” gisa izendatu dute, eta ekoizpenari begirako alor teknikoaz arduratuko den atala da; bigarrena, “papera”, alde administratibo eta burokratiko landuko duena; hirugarrena, “kolektiboa”, alde pertsonala, asoziazionismoa, inguruarekin eta gainerako kolektiboekin harremanak eta abar aztertuko dituen; eta azkenak, “balantza” bezala izendatu dutenak, proiektu agroekologikoen egunerokoan egon daitezkeen gorabehera eta ustekabeei egiten die erreferentzia.



“Azkenean, proiektu agroekologikoetan beti daude aurretik kontuan izatea ezinezkoak diren gorabeherak: traktorea izorratu dela, ama gaixotu dela eta zaintzak antolatzea dagokizula... Noski, guk ezin dugu aurrez jakin zein ustekabeko gertatuko diren, baina ezin duguna da laneko kronograma bat planteatu gertatuko diren gauza horientzako batere tarterik utzi gabe”. Proiektu agroekologikoak abiatzera doazenei informazio guztia ematea da eskolaren helburua, bereziki nekazaritza eskoletan eta antzekoetan hanka motz gelditzen diren esparu horietan. “Teknikoki oso prestatuta egonda ere, beste alor horietan hasiberriak laguntzea da asmoa”, adierazi dutenez.

LEHEN EDIZIOAN, ZAZPI PROIEKTUTAKO “IKASLEAK”

Proiektuentzako babesa modu pertsonalizatuan egingen dute eskolan.

“Guztientzat material orokorra erabiliko dugu, baina gero, bakoitzak bere proiektua ekarri eta horren jarraipena egingen dugu”. Klase presentzialak Arabako Salcedon izanen dira, baina online bidezkoak ere egingen dituzte. Irakasle lanetan Roa eta Isa Alvarez Vispo ari-tuko badira ere, proiektu bakoitzaren alorreko profesionalekin ere egingen dute lan.

Otsailaren 24an ekinen diete klaseei (ikastaroa gazteleraz da), eta lehen edizio honetarako zazpi proiektuk eman dute izena eskolan: tartean baratze-gintza, erlezaintza, abeltzaintza eta eraldaketa proiektuak daude. 600 eurotan jarri dute matrikula, baina matrikula hori proiektuarentzako izanen da, alegia, izena ematen duen proiektu bakoitzetik nahi adina lagunek har dezakete parte. Informazio osoa tierrapapeltijera.com/escuela-agroecologica helbidean aurki daiteke. ●



“Komikiak aukera ematen digu gauzak askeago kontatzeko”

Adur Larrea komikigilea

Itsasuko lurretan dagoen Altzuieta etxean jarri digu zita Adur Larrea komikigileak (Bilbo, 1982). Hemen biltzen ziren *Lurbinttoko ohoinak* (Elkar, 2022) istorioko protagonistak diren pertsonaiak: Konbentzio Gerrako galtzaileak, desertoreak eta, oro har, kaltetuak; taldean bat eginda, inguruko herrietan lapurretan eta izugintzan aritu ziren XVIII. mende amaieran. Ordutik dago hemen etxea, beraz. Ez da 200 urte baino gehiago iraun duen bakarra: elkarrizketa egiteko toki bila Itsasun bertan eta Kanbon bueltaka gabiltzala, komikian agertzen diren beste toki asko ere seinalatu dizkigu Larreak. Lekuen eta historiaren arteko harremanaz hizketan hasi dugu solasaldia.

 **GORKA BEREZIARTUA**  **DANI BLANCO**

Desberdin ikusten dituzu inguru hauek *Lurbinttoko ohoinak* sortzeko egin duzun ikerketaren ondoren?

Bai. Egia esan, honetaz idatzi izan den arren, 1960ko hamarkadan egin zuen azken aldiz Robert Poupel izeneko ikerlari batek. Geroztik nik ez dut ezer jakin, uste dut hemen kontatzen direnak ahanzturan gelditu direla. Komikiarekin ikertzen hasirik, konturatzen zara tokiek duten garrantziaz; eta gau-

za batzuk gaur egunera arte heldu direla. Duela 227 urte gertatu bazen ere, tokiak hor dira, asko bederen. Orain, nonbaitetik pasatzen garelarik, bada-kigu non gauden.

Bertso zahar batzuetatik abiatu zinen. Zer zuten, hainbeste urteko proiektu batean murgilarazteko?

Xabier Kaltzakortaren *Bertso jarrietatik ahozkoa*. *Urkabe-bertsoak euskaraz:*

estudiante gaztearenak eta beste (Ahoz-kotasuna aztergai; Mendebalde Kultura Alkartea, 2003) lanean agertzen zirelako ezagutu nituen bertso horiek. “Kordel-literatura”, hiltzera kondenatuen historiak jasotzen dituen, bada genero bat, gutxi gorabehera. Eta niri interesatzen zait, badirelako normalean hiltzear direnen azken testamenduak, azken hitzak, aitorpenak... Bertso hauek, pixka bat halakoak izanik ere, badute puntu bat umoretsuagoa; umore beltza, makabroa. Hau da, agian ez dira haiek idatziak, kartzelan edo galeretan, beste norbaitek baizik.

Bestetik, Kaltzakortaren lanean kokapen historiko zehatzik agertzen ez zenez, jakin-minez geratu nintzen. Lurbintto izeneko toki bat aipatzen da, toponimoa da... Bada zerbait horren gibelean? Egiazkoa da edo formula bat da toki alegiazko bat izendatzeko? Hasi nintzen bilatzen eta ikusi dut Kanbon bertan badirela bizpahiru –Lurmintoa, Lurminttu, baita frantses hizkuntzak deformatuta grafia aldatu zaien beste batzuk ere-. Beraz, alde batetik toponimo horren bilaketarekin eta, aparte, garaiari buruzko irakurketa paralelo batzuk eginez, konturatu nintzen eremu honetan egon zela ohoin edo mendekari banda bat, ibili zena garai batean saraski batzuk egiten.



Ohoin gisa izendatu dituzu tituluak ere, baina hori baino gehiago ere baziren ezta? Desjabetuak, baztertuak... Pertsonaia konplexuak dira, garai zail baten erdian.

Bai, "ohoinak" jarri diet bertsoetan ere hala agertzen zelako. Eta hain konplexua delako izendatzea... Zer dira, ohoinak? Heroiak? Gaizkileak? Bertsoaren omenez mantendu dut izenburua, baina gero komikian sartzen zarelarik ikusten da "ohoinak" ez dela agian hitzik aproposena. Ez dut topatu horren ordez zein izan daitekeen hobe, ordea. Lapurreriaz aparte badira mendeku ekintzak, ekintza politikoak... ez ziren bakarrik irabazi-asmoekin aritu. Mendeku-gosea bazen, eta nik uste hainbat faktore juntatzen direla: perfil askotako jendea zegoen banda horretan -laborariak, teilariak, soldadu ibilitakoak, desertoreak...-, momentu batzuetan 60 pertsona baino gehiago izatera heldu ziren; eta biltzen ziren Altzuieta etxea bilakatu zen babesleku etxegabetu eta alarguentzat, haien seme-alabentzat eta nora jo ez zekiten familientzat.

Gero, kontuan izan behar da haietako asko gerratik zetozela, armekin. Eta bazekiten haiek nola erabili. Beste batzuk Landetatik etorri ziren, deportatuak izan ondoren: bazuten amorrua eta mendekugosea. Hori guztia teilape berean juntaturik. Talde antolatua ziren gainera. Ko-

mikian ez da agertzen, baina bazituzten halako atorra gorriak, edo banda gorriak, edo gerriko gorriak identifikatzeko osagai gisa.

Ez duzu pertsonaien epai moralik egiten, urrun dago komikia zintzoen eta gaiztoen arteko bereizketa argiegiak planteatzetik.

Ez naiz nor epaitzeko. Hemen gertatzen dena, gertatu da: deportazioak, gillotinaketak, jazarpenak... Tokiak ere hor dira. Pertsonaiak ere baditugu dokumentatuta. Batzuei buruz gauza gutxi dakigu, bertsoetan aipatzen dena; beste gauza gehienak dokumentu ofizialetan, epaitegietako paperetan eta horrelako artxiboetan daude. Noski, hortik ateratzen den begirada beste bat da. Orduan, pertsonaiekin egin behar duzu halako profil-lan bat, haien atzean dagoen historia bilatu.

Aurrekoa galdetu dizut, erraza iruditzen zaidalako talde horren historia gaur egungo begiekin erromantizatzea ere. Ez dut uste hori egin duzunik ordea.

Sufritu, denek sufritu dutelako. Kontakizuna, epaitzeko edo idealizatze bako, gehiago da gertaeren sekuentzia bat aurkezteko. Gero bai, pertsonaia batzuekin sentitu dezakezu afinitate handiagoa edo

txikiagoa, eta orduan hasten zara gogoeztatzen: "Honek hau egin zuen -pertsona bat garbitu, adibidez-, eta hala ere empatia sentitzen dut berarekin".

Urte haietako biolentzia eta jazarpen-giroa norainokoa zen ere erakusten du komikiak.

Lau-bost urtetan sufritu zutena ikaragarria da: gerra, gerraostea, goseteak, deportazioa, gillotinak, emigrazioa... Eta miseria etengabea. Alde batetik biolentzia estruktural hori dago; baina bestetik, beraiek erabiltzen zutena ere bai. Ez ziren txikikerietan ibiltzen, agian jasotakoaren neurriko biolentzia erabiltzen zuten. Mehatxuak, irainak... leunetik hasita horiek. Gero, hemen inguruan egiten ziren Zintzarrotsak: etxe batera joan eta hango trapu zikinak atera... Baina ondoren hasten dira eraso fisikoak, tiroketak etxeei; su ematen diete besteen belardiei, mahastiak moztu, ebasketak... Askotan ez zegoen gauza handirik ebaste, egia esan. Ikusten duzu zer lapurtzen zuten eta denak aski miserableak ziren.

Garaia nola islatu duzun deigarria da: kasik entzun egin daitezke orduko Itsasuko kaleen hotsak.

Familiaren erdia eskualde honetakoa dut eta horrek asko erraztu dit tokietara joatea eta ezagutzea. Baina ariketa ere izan



Lau-bost urtetan sufritu zutena ikaragarria da: gerra, gerraostea, goseteak, deportazioa, gillotinak, emigrazioa...



da. Argiztapena, adibidez: urte haietan eguzkia eta kandelak besterik ez zeuden, eta kontraste horiekin jolastu dut. Nik uste, gainera, ongi doakiola komikiari, halako dramatismo puntu bat emateko. Gero, gaur egun badira programak Interneten jakiteko data jakin batean ilgora, ilbehera edo zer izan zen. Eta hemen [komikiko 7. orrialdea seinalatzen du] nik sartu nuen data hau, 1794ko otsailaren 19a, protagonistek desertatzen duten eguna. Noiz desertatuko dute, lanpararik eraman behar ez izateko? Ba, ilargi betea zegoen gau batez. Pitokeriak dira, baina nik esaten nuen: nola gurutzatu zuten basoa gerra baten erdian? Dokumentazioa grafikoki ere egiten da kasu hauetan; ezin jakin, ordea, garai hartan Itsasuko kaleak harrizkoak izango ote ziren edo lupetza izango ote zen; ez dakit teiltatu guztietan teilak izango zituzten edo lastoa... Baina ikusirik etxe asko gaur egunera arte heldu direla, toki batzuk aski fidelki kopiaitu ditut. Etxe hauek [komikiko 64 eta 65. orrialdeetan agertzen direnak, Lurbinttoko taldearen ekintzen zerrendaren berri emanez] gaur egun ere badira eta nik marraztu dut nola izan zitezkeen garai hartan nire ustez.

Bandako gehienak gizonak dira.

Bai, baina emakumeak ere baziren Altxuaitan, taldea desegin zuen sarekadan atxilotu zituztenen artean. Hasieran pentsatu nuen taldekoak zirela. Baina ez dut uste, gehienak adin txikikoak zirelako: hamasei urteko neskato bat, hamahiruko bat, bederatziko beste bat... Aldiz, komikian aipatzen dudanak, Joana Xurrutek, bai izan zezakeen beste inplikazio bat. Ez dut esan nahi Poliziak arrazoia zuenik, baina bi hilabetez eduki zuen atxilotuta; eta ikusirik bere senarra gillotinatuta, eta ikusirik bere senarra gillotinatuta, agian izan zezakeen motibazioen bat taldean aritzeko. Egia da komikia oso

“ ”

Urte haietan eguzkia eta kandelak besterik ez zeuden, eta kontraste horiekin jolastu dut. Nik uste, gainera, ongi doakiola komikiari, halako dramatismo puntu bat emateko

maskulinoa dela, baina nik banda horren historia kontatu nahi nuen eta banda horretan denak gizonak dira, Joana salbu.

Komikiaren amaieran historiaren ahoz ahoko transmisioaren gaia ere agertzen da. Pentsatzen dut gertakariak ez direla berdin-berdin ikusten Lurbinttoko ohoinei buruzko bertsoetan eta, adibidez, haien aurkako epaiketako aktetan.

Ez, adibidez bertsoetan esaten da urkatu zituztela, baina ez dakigu “urkatu” esatean urka-mendiari buruz ez ote diren ari osotasunean. Literalki hartzen badugu, ez zituzten urkatu, gillotinatuta baizik. Poupelek asko miatu zuen artxi-boetan, baina euskaraz ez zekienez, gauza batzuk gaizki transkribatuta daude. Epaiaketaren aktak egiten zituztenek ere gaizki transkribatzen zituzten izenak, ezizenak, tokiak... Orduan, batzuetan ni atzetik pasa naiz eta zenbait kontu beste era batera ulertu ahal izan dut.

Bi orrialde beltzekin islatu duzu bandako kideak kondenatu ondoren sortu zen isiltasuna. Zergatik ez genuen historia hau ezagutzen? Agian talde horren historia aldarrikatu zezakeen inor ez zelako etorri atzetik?

Bai, nolabait familia-kontua da. Herri txikiak dira eta gillotinatutak izan ziren, ez bakarrik hauek: eskualde honetan dozena bat lagun hil zituzten bizpahiru urtetan. Nire ustez asko da hori. Eta beste hainbeste deportazioan hilak. Hori bai dela agian aldarrikatzeko moduko zerbait: deportatuen ahanztura. Baina agian bada ohitura hori, etxeko trapuak etxean garbitzekoa: “Pasa da, ez gara gehiago mintzatuko horretaz”. Ez dakit, agian gero geratuko ziren familia arteko xextrak edo ezinikusiak, baina erregistroetan ez da halakoen arrastorik. Lurbintto bera ere desagertu da toponimo bezala.

Azken urteotan geroz eta gehiago ikusten dugu komikiaren bidez egindako fikzio historikoa. Zer posibilitate eskaintzen ditu formatuak zure ustez?

Uste dut Irati Majuelok idatzi zuela *Be-rrian* komikia bizi izan dela literatura-ren genero erdi-subsidiario gisa. Eta egia da. Agian horrek ematen digu askatasun bat, ez nahi dugun guztia egiteko, baina bai gure parametrotan gauzak askeago kontatzeko. Asisko Urmenetak, Mikel Begoñak edo nik neuk alde historiko hori hartzen dugu eta gero gauza asko fikzionatu. Agian komikia horretarako malguagoa da. Baina, aldi berean, irudia daukanez, sinesgarria gertatzen da. Ikusten dugu, eta gure begiek ikusten dutena “bada”, nolabait esateko. Konparazioan, pelikulak lantalde handien menpe daude, lan handia da. Komikiarena ere bai, baina norberak egin dezake. ●



LIBURUA

Zatiak, atalak, puskak



IRENE PUJADAS

PUSKAK IRENE PUJADAS IGELA, 2022

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Irene Pujadasek idatzi eta Amaia Apalauzak itzuli duen *Puskak* liburuarekin natorkizue gaurkoan; beste batzuetan egin ohi ez dudan arren, gaurkoan azaleko irudian pausatu nahi dut begirada. Itsaso Arizkurenen argazki bat ikusiko dugu eta otorduren bat egin ostean eta mahaia jaso aurreko momentua erakusten digu; jan gabeko ogi puskak, ondo zupatu gabeko oilasko hezurra, intxaur azal batzuk, inork jan nahi izan ez dituen pistatxo pare bat eta kafeari azken zurrupa egin gabe duen taza. Bizitza puska bateko puskak hain zuzen ere.

Liburua 21 errelatuk osatzen dute eta literatur genero horren ezaugarriak primeran erabili ditu Pujadasek: testu trinkoak eta motzak dira, aurkezten den egoeran bat-bateko norabide aldaketa bat gertatzen da eta irakurlearen inpaktua sortzen dute (askotan

harridura eta batzuetan zalantza, izua, angustia eta abar). Hala ere, estilo propioa ageriko da eta hainbat planteamendutan originala eta bizia iruditu zait. Ironia, umore beltzaren erabilera liburu osoaren tonua baldintzatuko du.

Ez dugu testu guztiak aipatzeko letrorik, beraz, hiruzpalau aukeratu ditut mokadu eta aitzakia gisa. Liburuari izenburua ematen dion errelatuak irekitzen du bilduma: *Puskak*. Haur bat besoetatik erortzeak protagonistari sortzen dion beldurra baliatzen du hauskortasunaz eta zaurgarritasunaz hitz egiteko. *Ez zen gertatu*: bilduma bat errelatuak porrotera kondentatuta dauden eta, are gehiago, porrot gisa irakurtzen diren egoerak kontatzen dizkigu. Errelatua efikaza da: porrotaren ideia instalatzearekin batera arrakastaren ideologia bultzatu nahi duen jendartearen salatzen duelakoan nago. Eta errepikapenaren

estrategiak estutasuna areagotzen du. *Galderen aroa* heriotzari buruzko elkarriketa bat da: haur batek inozentziaz egindako galderak eta heldu nekatu batek ematen dizkion erantzunek osatua. Heriotza gai errekurrentea da liburuan, nahiz eta leku eta ahots desberdinetatik egiten duen aldi bakoitzean.

Uxue Apaolazak gibelsolasean aipatzen du lehehengo irakurketa traketsak berrirakurketa dosifikatuagoa eskatu ziola, eta bigarren irakurraldia dibertigarriagoa izan zaiola idatzi du. Bat nator berarekin. Nire kasuan lehenengo irakurraldian liburua amaitzea ez da lan erraza izan. Ez interesik piztu ez didalako, errelatuek irakurraldi bat baino gehiago eskatzen zidatelako baizik. Eta arreta. Arretaz, belarriak zabalik eta begiak erne irakurtzeko liburua baita. Bigarren bueltan, aldiz, gozatua hartu diot. ●



MUSIKA

Ameskeria edo ispilu-bolaren distira



OASIA

ASSATA

AUTOEKOIZPENA, 2022

IKER BARANDIARAN

Oso dotorea eta nabarmentzekoa da diskoetan jasotako kontakizuna testuinguruan jarri eta aberasten duen bibliografia bertan gehitzea. Hala egiten dute sortzaile gutxi batzuek, batez ere kontatzeko zerbait interesgarria dutenek, edota kantu bilduma entzuleek hausnarketa egiteko baliatu nahi dutenek. Zer esanik ez taldearen izenean bertan AEBetako pantera beltzen aktibista eta pentsalari ezkertiar esanguratsu Assata Shakur inspirazio dutenean; eta, are gehiago, ikusten dugunean taldekideen artean daudela musikari adina garrantzia hitzei eta ekintzei eman zieten Anger bandako hainbat kide.

Dantza egiten duen herria inoiz ez dela hilko dioenik bada, eta dantzarik

gabe ez dagoela iraultzarik. Bada, edo zer aldatzeko ezinbestekoa da gizartea mugitzea, eta horretan dabilta arrasatearrak: dantzaren bidez kontzientziak iratzarri, neuronak dantzan jarri eta komunitatea indartu nahian.

Bigarren disko luzea dugu hau, taldea 2019an sortu eta pandemia aurretik kaleratutako *Dantzatu madarikatuok* lanari segida eman eta jauzia egiten duena. Proiektua eta estreinako lana aurkezterakoan 'Zuriak Beltzez' esamoldea erabili eta asmatu zutela uste dut iraganeko Bap! handiei keinua egin eta egindako jauzia bi hitzetan laburbilduta; hala nola, rocka ezkondu funkua eta soularekin.

Pluralean dantzatu-k zabaltzen du diskoa bi ahotsetara abestutako funk

eta rockaren ezkontza itsaskorrarekin. *Kontuz, banpiroak!* souleragoa eta elektronikoagoa da aldi berean. *Lehia*-k ematen dio hasiera hit!-en jarraibideari; berau da New Zigarroleans-eko sasikumea, haize instrumentu eta teklatu dotoreekin tentagarria; eta jarraian datorren *Jackie Shane* pieza ederra, sorgindu gaituzten funky erritmoekin, hazi egiten den kanta. *Gentleman*-ek kadenztzia berezia dauka, erlaxatutako Glaukoma distantzian, drum&bass geldoa, rap eta soula. *Norbait izan nahian*-ek ez du gehiago behar: funkya, rocka, 80ko hamarkadako giroa eta ukitu latino. *Munstroa* da paradoxikoki poperoena eta parrandarako xuxurlatzea. Eta, azkenik, *Opio berriak* zainetan edo burmuinean sartzen den agur ederra. ●



Pentsatu dut

📷 IÑIGO SATRUSTEGI

Hitz esana ikusi ostean, kronika horrela idaztea pentsatu dut. Pentsatu dut, *Zergatik* [pausa] *errezitatu* [pausa] *behar* [pausa] *dira* [pausa] *poemak* [pausa] horrela? Nik ere esan diet lagunei banoa poesia-errezitaldi batera. Eta haiek ere esan didate *uf, ez dut ulertzen poesia*. Txakrak eta begiak eta ez direnak zabaldu dizkidate eta asko pentsatu dut futbolariak estadioak betetzeko duten gaitasunaz. Pentsatu dut, edo hobe esanda, pentsarazi didate nik eta nire metro laurogeiak molestatzeko dugula metro hirurogeikoa kontzertuetan, baina ni ere jartzen naizela beti altuenaren alboan. *Pajak* egiten dituzten musika-riak imajinatu ditut, eta etxeko aldatzen ari denaren azalean jarri naiz. Ikeako armairu bat, Ikeako ohe bat, Ikeako

lanpara bat, Ikeako estorea eta Ikeako beste txorakeria pila bat ditudan honetako *touché* pentsatu du. Eta haserre irakurtzea ere normala dela 10, 9, 8, 7, 6 urteko haurrari egindako abusua 5, 4, 3, txin-txin 2, 1... irakurri duenean. Nik ere bilatu dut looperraren izena Interneten zeren ze ostia da looper bat eta ikusi dut ahotsarekin jolasteko erabili dutena dela. Odoleztatuta dagoen Agate Deunari buruz ari zirenean pentsatu dut zein ausarta izan behar den hau egiteko, poesia egiteagatik bakarrik ez, poesia horrela egiteagatik. Ni ere ez naiz tarot zalea, fededuna, siniskerietan ibiltzekoa, *eta sinetsi nahi nuke baina ez dakit zertan*. Eta katurik ere ez dut, baina pentsatu dut agian beharko nukeela bat, hutsune horiek betetzeko eta kontrolatzeko norbait

HITZ ESANA

NOR: Mejillontigre kolektiboa

NOIZ: Urtarrilaren 20an

NON: Laba (Iruñea)

izan dezadan. Sabrina Spellmanekin oroitzapenak desblokeatu dizkidate eta *nor da nire Sabrina* pentsatu dut, *nor ezagutu nahi nuke? Nor izango zen erabateko dezepzio bat nire erreferenteen artean?* Pasaia badiatik ikusten diren auto guztiak ez dira kabitzen begirada batean, ezta 2.000 karaktere hauetan ere pentsatu dudana guztia. Eta berriz *touché*, parent(h)esiak erabili zalea izan naizelako ni ere, baina tira, denok egin dugu. Etorkizuneko haurraren pentsatu dut, ikusi beharko baitu munduan badela jende zitala, bolleroa, zerria, kanibala, perfektua eta beste ehunka motatakoa. *Pum* egin dit zerbaitek barruan, ez baitago gauzak egiteko modu bakarra. Mesedez, segi #PoetryToThePeople egiten eta josten. Horrelako ghiago behar dira. ●



Sudoku

1		7	4	5	9	2	3	
6			1	2			7	
	2	9			3	1		
			5	9		6	8	1
			8		1		9	7
8	9		6				2	
					5	8		3
		3					1	
		8			7		6	

5x5

1. Metalezko kapela.
2. Gaueko otordu.
3. Tripa.
4. Esnegaina.
5. Oiloaren ar heldu.

[illegible]

H	V	U	J	V	A	Z	I		N	V	A	V
I	U	T	M	E	N		K	E	V	A	V	I
F	V	K	U	E	U	L	T	Z	E		Z	Z
S	E	G	U	Z	T	I	Z	V	G		U	U
L	U	I	V	N	B	I	O		T	Z		Z
U	B	U	I	A	V	M	E	M	E	L	O	
I	K	O	L	K	O	R	D	E	L		B	K
V		V	E	R	A	S	I	A	V	S	E	V
T	O	N	B	A		I		J	A	I	E	O
G	O	G	N	G				L	A	R	I	I
G	V	A	U				U	R	M	A	E	L
P	G							I	G			O

Iratxe Aguilera 'Kai Nakai'

GERRIAK DANTZAN JARRI ZALE



REGGAETOIA ETA EUSKARA, ESKUTIK

Musika urbanoa, euskaraz eta emakumeak ahalduzko mezuekin; horixe da Iratxe Aguilera Kai Nakai taldearen bidez plazaratzen duena. Unean une, bogan dauden ekintza edo gertaerei kantatzen die abeslari arabarrak. Orain-tsu euskaratu eta sareratu ditu, esaterako, BenidormFest2023 jaialdiko finalisten abestiak. "Hurrengo urtean Euskal Herria ordezkatzeko egotea espero dut", erantsi du sare sozialetan. 2021ean *Maitia* izeneko lana kaleratu zuen kaseta interaktibo baten formatuan. 2020an, aldiz, *Baimenik gabe* diskoa argitaratu zuen bederatzi kantarekin. Disko berria prestatzen ari da orain, udazkenean sareratzeko. Ilusio handiz ari da lanean.

"Reggaetoia ez da matxista, genero bat gehiago da; musika industria orokorrean da matxista"

Iratxe Aguilera (1996, Gasteiz) da Kai Nakai. Musikari arabarrak euskarazko musikarekin eta ahalduzko letrekin astindu ditu gerriak eta bazterrak. Disko berria prestatu bitartean, uneko kanta entzutetsuenen bertsioak egin ditu sareetan. Reggaetoia baino, musika industria dela matxista dio: "Ez da kanpoko gauza, Euskal Herriko festibaletako artista gehienak gizonezkoak dira, eta ez da emakume artistak falta direlako".

 **IZAR MENDIGUREN COSGAYA**  **KAI NAKAI**

Zein toki du euskarak reggaetoiaren mundu zabalean?

Gutxi, oso gutxi. Gaur egun, hemen-go musika eszenan espazio txikia du, baina nahi duen tokia izan deza-keela uste dut. Horixe aldarrikatzen dut. Askok diote reggaetoia euskaraz egiteak euskal kultura zapaltzen eta zapuzten duela, baina aizuz, txiki... gaurkotu zaitez! Gaur egun, hainbeste musika genero eta fusio daude, nahi duguna egin dezakegula, eta euskal gazteriak hori behar du, hori eskatzen du! Horregatik, sor dezagun hori ere.

Kai Nakai izenarekin aritzen zarete oholatza gainean. Nondik dator, eta noiz ekin zenion bideari?

2020an hasi nintzen Kai Nakairen proiektuarekin. Txikitatik maite izan dut asko musika, baita oholatza gainea ikuskizuna ere, eta betidanik amestu izan dut abeslari izatear-

ekin. Gaur egun topera nabil; hain justu orain, hurrengo diskoa prestatzen ari gara.

Munduan birala egin da Shakira eta Piquéren arteko aferak.

Abestia egin zen ezagun, eta euskarara ekarri zenuen zuk. Milaka ikustaldi izan ditu zure bideoak.

Udan hasi nintzen uneko abestirik entzutetsuenak euskaratzen. Disko berrian lan egiten dudana bitartean, sareetan ezagutzera emateko modu ona dela uste dut. Hartara, publikoari begira geldialditxoak egin beharrean, gero eta jende gehiagori erakutsi diezaioket zelan abesten dudana. Eta bada beste puntu garrantzitsu bat ere: euskara entzutea asko gustatzen zaio bai hemengo eta bai kanpoko jendeari.

Emakumeen ahalduzkoa oso presente dago zure letra eta



“Sare sozialek askotariko aukerak ematen dizkiguke, eta nire kasuan, kontziente naiz erraztasuna daukadala eduki ezberdina modu ezberdinean sortzeko. Horri esker jende askoz gehiagorengana heldu naiteke, eta artista moduan hazi, ospea irabazi”.

abestietan. Reggaetoia hankamotz dago feminismoan?

Nire ustez aurreiritzi asko daude, baina reggaetoia beste musika genero bat da eta ez da berez matxista. Nire musikan konprobatu dezakezue. Musikaren industria da orokorrean matxista, eta ez da kanpoko fenomeno soilik: hemen, Euskal Herrian, festibal eta jaialdietan, oholtzaren gainean dauden gehienak gizonezkoak dira, eta ez da emakumezko artistak falta direlako. Gauza asko aldatu beharko ditugu.

Kanta entzutetsuen bertsioek ala kanta propioek, zerk funtzionatzen du gehiago?

Biek ondo funtzionatzen dute elkarrekin, elkarren osagarri izan daitezkeelako. Artista moduan nire diskografia propioa daukat, sorkuntza propioarekin, baina eduki ezberdina eskaintzen dut sare sozialetan. Nire musika gustuko dutenek bertsioak ere gozatuko dituzte,

eta bertsioen bitartez ezagutzen naute-nek, nire musika ezagutu eta sorpresa ederra eramango dute.

Sare sozialetan reel edo TikTok ugari plazaratu dituzu. Musika egin eta zabaltzeko garai berriak datoz?

Sare sozialek askotariko aukerak ematen dizkigute eta, nire kasuan, kontziente naiz erraztasuna daukadala eduki ezberdina modu ezberdinean sortzeko. Asko disfrutatzen dut egiten gainera, eta emaitzarekin oso gustura geratu ohi naiz. Horri esker jende askoz gehiagorengana heldu naiteke, eta artista moduan hazi, ospea irabazi.

Orain, disko berria egiten ari naizen garai honetan, desagertuta egongo nintzateke berez, jarraitzaileengandik nahiko aparte. Nahiago dut sareetan pixka bat aktibo egon eta denbora aprobetxatu.

Arabarra, emakumea eta euskalduna. Ardi beltza sentitu zara

inoiz musika eszenan?

Ez, ez naiz horrela sentitu. Badakit erronka ez dela makala, baina mundu honetan lan asko egin behar da. Banekien ez zela erraza izango, baina ondo ateratzen ari zait. Konfiantza daukat nire buruarengan eta prozesuan sinesten dut. Emakume arabar eta euskaldun hau urrun ailegatuko dela uste dut, hala esaten dizut. Ikusiko dugu urte batzuen buruan ea non gauden!

Disko berria grabatzen ari zarela kontatu diguzu. Zerbait aurreratu dezakegu?

Urrian edo azaroan kaleratu eta aurkezten hasteko moduan egongo garela esango nuke, baina hainbat pieza hila-bete batzuk lehenago promozionatzen eta argitaratzen joango naiz, orain arte egin bezala. Uste dut diskoa oso lan polita izango dela, kolaborazio berezi askorekin gataz-eta. ●

Akelarre identitarioa

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Akelarre izeneko programa polemiko horri buruz ezin dut gauza handirik esan. Eta ez da medikuak iritzia ematea debekatu didalako –egingo du noizbait, baina Osakidetzan zita 2029ko urrirako eman didatenez, nik hemen segituko dut matraka ematen–; ez dut programa ikusi, hori da kontua. Eta antza denez, liburuekin ez bezala, telebistarekin oraindik ezinbestekoa da programak ikustea nikustegintzan eta eneaburuzketan murgildu baino lehen.

Horrek trantze oso estuan jartzen nau, noski: ez nuen DBH aprobatu ETB2 ikusten bukatzeko, horretarako aski nuen Lehen Hezkuntzarekin. Baina, aldi berean, horrelako lokaztian urdezerrikiro iraulka ibiltzeko tentazioa handiegia da. Beraz, saioaz baino, eragin duen polemikaz bizpahiru kontu esatea erabaki dut, inor mintzeko asmorik gabe –baina xede hori lortzeari dagokionez, helburu apal xamarrekin–.

Hasteko, iruditzen zait eztabaida asko fokalizatu dela programa konkretu horretan. Arbolak, ohiko moduan, ez digu uzten basoa ikusten. Alegia, asuntua ez da hainbeste saio hori bera. Kenduko dute noizbait, ideia jenialarekin etorri zen exekutiboa beste ideia jenialen batekin etortzen denean. Baina antzeko beste emaitzaren bat jarriko dizute pantailan zuk “aibalaostia Patxi” esaten bukatu baino lehen.

ETB2 betidanik izan da, gutxi gora-behera, eta salbuespen batzuk kenduta, horrelako edukien kontainera. Pentsa, katearen garai loriatsuenetan Ramontxu Garcia eta Rifi Rafe bezalako “debateak” ziren ikur. Gaur egun audientziari *Conquis* izeneko gauza bigorexiko horrekin eusten dio. Euskaldunok ETB1 pairatu behar dugula, ados, baina EAEko erdaldunei tokatu zaiena ere ez da makala –*Akelarre* bezalakoak




beraientzat produzitzen dituztela ulertzen baitut nik–: batez besteko maila kulturaletik oso behera dauden saioak; astakaikutzat hartzen dituen telebista.

Gero dago polemikaren parte solemnea. “Euskal” hitza tartean sartzen den bakoitzean, argitu behar izaten da ea subjektua euskal erditarrak diren –a.k.a. EAEko biztanle guztiak– ala literalki euskaldunak bakarrik; hau da, euskaraz lan eta bizi, langabezia kobratu eta hil ondoren ere marmolezko plakan “hemen datza” idazteko aginduko dutenak. Eta subjektu kolektibo guztiak argitzen saiatzean gertatzen den bezala, ez da arraroa honetan ere kontuak Paradoxen Errepublikan bukatzea: agertuko zaizkizu batzuk minduta, telebistak “kaxero” deitu dielako, eta hasiko zaizkizu euskara eta euskal kultura sutsuki erdaraz defendatzen;

eta agertuko zaizkizu polemikaren erdian euskaraz ez dakitela konturatuko direnak, “elebakar” entzun eta automatikoki “maketo” ulertzen.

Mende bat daramagu horrela eta beste mende bat ere pasako zaigu mar-txa honetan. Indar-korrelazioek baino, ahultasun-korrelazioek agintzen dute gaia identitatea denean, hemen mundu guztiari falta zaiolako zerbait: batzuei hizkuntza eta kultura erdi-normaliz-tzea; besteei eroso bizi ahalko duten euskal identitatearen bat formulatzea. Eta portzierto, hutsune horiek betetze-ko orain arte eskuratu ahal izan dugun teknologiarik aurreratuenak, Euskal Au-tonomia Erkidegoak, aspaldi samarretik erakutsi digu ez duela askoz gehiagora-ko ematen. Egoera, beraz, nahiko katas-trofikoa da. Ez dezagun serioegi hartu. ●



ATXEGA JAUREGIA

JATETXEA

AITZEZARRA KALEA 1 USURBIL, GIPUZKOA
943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

BERTAKO -rekin, BAI!

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz **bertako** 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz konfiantza osoa eta lasaitasunari
- Baietz bertako hornitzaileei

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko



WWW.BERTAKO.EUS

BIZKAIA
946 523 935

GIPUZKOA
943 903 450

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

bertako
igogailuak | ascensores

